Egia esan, egitura hau aski mugatua da eta zenbait autorek, dirudienez, ez dute gehiegi maite: Añibarrok edo Agirre Asteasukoak, adibidez —nik ikusi dudanez behintzat, eta aitortu behar dut ez dudala xeheki aztertu puntu hau, hasieran forma bataren eta bestearen hedadurak ez baininduen gehiegi axolatzen— normalki *-TZEA* forma erabiliko dute ¹¹.

Txillardegik *-TZEN* agian usuago dela dio Bizkai aldean, *-TZEA*, berriz, Lapurdin. Egia esan, ez dut uste gauzak horrela direnik: Axularrek, adibidez, dexente erabiltzen du *-TZEN* egitura *gaitz* eta *erraz* adjetiboekin. *Gaitz*-ekin sarriago *erraz*-ekin baino, hala ere. Dena dela, bi egitura hauen banaketa autore eta euskalkietan zehar egin beharko litzateke, agian. Nik neuk ez dut izan gai honetaz autoreak xeheki aztertze astirik, honetan hasi nintzenean gehiago gidatzen bainintzen neure hizkuntz gaitasunaz beste inorenaz baino. Baina gero, eta bereziki txosten hau gertatzerakoan, nabaritu nuen aipatzen dudana osotasun falta. Horregatik, hemen esango dudana geroago egin daitekeen azterketa baterako bide urratze bat besterik ez litzateke izango.

Dena dela, Axularrengandik har ditzakegu zenbait adibide. Azterketa osoago baten faltan, uste dut esan daitekeela *zail(gaitz)/erraz* adjetiboak direla medio, *hiru egitura* desberdin agertzen zaizkigula. Ikus ditzagun astiroago zenbait adibide:

1) Lehenbiziko multzoan formarik hedatuena eta arruntena sartuko dugu. Normalena da mendeko perpausak *-TZEA* forma hartzea. Hona hemen zenbait adibide:

- (21) ezin dateke *gaitz*, amorio duenarentzat, *MANAMENDUEN KONPLITZEA* (Ax. 314) ¹²
- (22) *gaitz da HANDIK PITZTEN DEN SUAREN IRAUNGITZEA*: eta bai halaber *IENDEAREN IXILIK EDUKITZEA* (Ax. 263)
- (23) erraiten dute *gaitz dela IAINKOAREN ZERBITZATZEA* (Ax. 325)
- (24) *Gaitz da MIHIAREN ONGI GOBERNATZEA* (Ax. 311)
- (25) *gaitz* eta penos da, *PARABISUKO BIDE MEHARRAREN EDUKITZEA* (Ax. 311)
- (26) ea zein den *gaitzago, IANKOAREN ZERBITZATZEA, ala DEABRUAREN* (Ax. 307)

eta abar.

¹¹ Era berean, zenbait hiztunentzat ez dago *-TZEA* forma baino.

¹² Zerbaki hauek ez gaituzte liburuaren orrialdeetara bidaltzen, A. Villasanteren argitalpenetan egiten den testu banaketari dagozkion zenbakietara baizik.

Adibide hauetan denetan mendeko perpausetan izen sintagma objektua agertzen da, genitibo forman agertu ere. Sujetua, berriz, horrelako perpausetan gehienetan gertatzen den bezala, PRO erakoa izango litzateke¹³: zehaztugabeko erreferentzia izango luke baldin eta perpaus nagusian PRO hori 'kontrola' dezakeen izen sintagma bat agertzen ez bada. Adibidez, (21) perpausetan, *amorio duenarentzat* agertzen zaigunez, hau izango litzateke perpaus txertatuko PRO horren erreferentzia zein den markatuko ligukeena. Dena dela, sujetoa agertu ezinik ez dago:

(27) *Gaitz da, ITSUAK KOLOREN BERRI IAKITEA* (Ax. 325)

edo

(28) *HARAGIAK HARAGIAREN BENZUTZEA, NATURALEZAK NATURALEZAREN AZPIRATZEA, gaitz da* (Ax. 240)

Baina badirudi sujeto hori agerian dagoenean eta baita, PRO agertuaren kontrolatua dagoenean, ez dela -TZEN agertzen -TZEA baino¹⁴.

Beste konplementu batzu ere ager daitezke mendeko perpausetan:

(29) Nola den geroago *gaitzago, BEKHATUTIK ILKITZEA* (Ax. 51)

(30) Erran nahi du *gaitz dela ZERUKO LORIAN SARTZEA* (Ax. 307)

Konplementu agertze edo ez agertze horrek ez dakit zenbatetarainoko garrantzia izan dezakeen. Agian izan dezake. Eta bereziki objektua agertzeak, eta sujetoa agertzeak zer esanik ez, garrantzia duela ematen du. Txillardegik dioena gora behera, *zail da* izan beharrean *zail zaigu* bezalako zerbait bada perpaus nagusian, nekez aurkituko dugu -TZEN forma. Axularrek honako adibideak eskaintzen dizkigu:

(31) *EMAZTETATIK APARTATZEA*, hain *zeikan gaitz* eta *gaitzi* (Ax. 34)

¹³ Hots: aditz mugagabea duten perpaus txertatu hauetan sujetoa ageriko izen sintagma bat izan liteke edo izen sintagma huts bat, 'hotsik' ez duen izen sintagma bat. Honi deitzen diogu PRO/PRO hauek batzutan ez dute erreferentzia jakinik, zeharo arbitrarioa baizik, 'edozein' edo 'inor' edo antzekoren bat esango bagenu bezala. Baina gerta daiteke izen sintagma huts horrek aurretik doan beste izen sintagma baten erreferentzia bera izatea. Orduan esaten dugu PRO hori 'kontrolatua' dagoela. Arazo hauetaz luzaro mintzo da Chomsky bere azkeneko lanetan ("Filters and control"), "On Binding" eta batez ere *Lectures on Government and Binding* (1981).

¹⁴ Datu gehiago beharko genituzke, baina nere hizkuntz gaitasunari dagokionez behintzat, hori honela da. Horregatik, oso bitxia gertatzen zait Txillardegik ematen dituen adibide-tako bat: *Gaitz du sinisten*. Perpaus hau gramatikala balitz, jakina, egin berri dudana baieztapena okerra izango litzateke. Dena den, Txillardegik ematen dituen adibideen artean, batzuk badute 'aita' bat, baina beste batzuk ez, liburuaren egilea bera ez bada. Eta, hain zuzen, ahotan darabilgun perpausa (*gaitz du sinisten*) 'aitarik' gabeko horietakoa da. Nondik aterea da esaldi hori?

- (32) *plazer zaiku hartzea eta berretzea, baiña gaitz, eta gaitzi GUTITZEA, ETA BIHURTZEA (Ax. 167)*

Adibide hauei (21) perpausa erantsi beharko litzaeike.

Puntu hau ondo aztertu beharko litzateke, baina uste dut nere inpresioa zuzena dela. Bestela, esan ote daiteke (31)-ren ordean (33)-ren antzeko zer-bait?:

- (33) ? *Gaitz zeikan emaztetarik apartatzen*

Era berean, zilegi ote da (32) eta (21) perpausetan *-TZEA*-ren ordean *-TZEN* jartzea? Hortaz, badirudi perpaus nagusian kontrolatzailearen bat dagoenean, hots: perpaus txertatuko PRO horrek erreferentzia jakina duenean ez dela posible *-TZEN* agertzea. Beraz, hemen izango dugu *-TZEN* agertu ahal izateko bete beharko den baldintza bat. Formarik normalena, hortaz, eta mugarik gutxien duena, *-TZEA* izango dugu.

2) Bigarren multzo batean erdarazko 'fácil de' delakoaren parekoak diruditenak sartuko genituzke:

- (34) *Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak, harri preziatuarekin, aditzera emateagatik giristino on ere guti dela: batak bezain bertzeak, direla gaitz EDIREITEN (Ax. 93)*
- (35) *Bada nola isatsaz maiz iragaitzen den etxea, erraz baita GARBITZEN (Ax. 347)*
- (36) *Hura da hetika gaixto sarthua ATHERATZEN ETA ERREME-DIATZEN gaitza*¹⁵ (Ax. 65)

Hauetan, axaleko egituran behintzat, badirudi izen sintagma bat agertzen dela eta ondoren aditz sintagma bat, AS honetan *gaitz da*-ren konplementu modura agertzen delarik *-TZEN* perpausa.

Beste antzeko adibide batzu ere badira, baina izen sintagma hori agiazki agertzen den ala ez, ez dago hain garbi:

- (37) *hark eraikitzen du erbia, pitzten du sua, gogoratzen du bekhatua, iratzartzen du haragia; eta behin iratzarriz gero, (haragia) gaitz da LOHAKARTZEN*¹⁶ (Ax. 263)
- (38) *gogoa airatuz gero, gaitz da SOSEGATZEN eta bere lekhura BIHURTZEN (Ax. 263)*

3) Eta azkenik beste batzu, lehen multzokoaren parekotzat jo daitezkeenak, baina *-TZEA* gabe, *-TZEN* agertzen dutenak:

¹⁵ Ez dakit perpaus hau zeharo zuzen idatzia dagoen. Ez ote da *bezala* edo antzeko hitzen bat falta hor?

¹⁶ Hemen *X-ek haragia lohakartu* edo, ulertzen dut. Hots: *lohakartu aditz iragankortzat emanaz. Ikus 4gn. oharra.*

(39) *Ez da gaitz IHARDESTEN*

Hemen, bigarren multzoan sartu ditugunetan ez bezala, ez dago perpaus nagusian ageriko sujetorik. Hala ere, *-TZEN* agertzen zaigu. Esanahiaren aldetik, ez dut uste lehenbiziko multzokoen eta hirugarren honetakoen artean alde handirik dagoenik. Froga bezala, har ditzakegu gogoan honako bi adibideok:

(40) Eta bertzela ere *gaitz da ADITZEN ETA ERDIESTEN, nola ahal dirateien elkharrekin...* (Ax. 375)

(41) Eta *gaitz litzateke KONTATZEA, nola gobernatzen diren erleak elkharren artean* (Ax. 21)

Bi perpaus hauen artean ez dago alderik, zentzuari gagozkiola behintzat. Hala ere, lehenbiziko multzokoak kontutan hartzen baditugu, berehala konturatu gara —gorago esan bezala— *-TZEN* ager daitekeenean *-TZEA* ere ager daitekeela, baina, alderantziz ez. Hots: *-TZEA*-ren ordez ez daiteke beti *-TZEN* jarri. Beraz, *-TZEN*-en agertzea zenbait baldintzaren mende dago. Aski dugu pentsatzea zer pasatzen den mendeko perpausaren sujetoa zehaztua agertzen bada. Ikusi bestela —eta oraingoan Axular albora uzten dugu— honako bi perpaus hauek:

(42) *Gaitz da IKASLEAK IRAKASLEARI BEHAR BEZALA ERANTZUTEA*

(43) ?? *Gaitz da IKASLEAK IRAKASLEARI BEHAR BEZALA ERANTZUTEN*¹⁷

Hortaz, *-TZEN* ager dadin, mendeko perpausaren ageriko sujetorik ezin ager daiteke. Eta, gainera, dirudenez, PRO horrek perpaus nagusian kontrolatzaierik baldin balu, orduan ere ez litzateke zilegi izango *-TZEN* agertzea. Hots: PRO horrek erreferentzia zehaztugabea izan beharko du.

Bestalde, begien aurrean ditugun adibideen arabera, badirudi *-TZEN* agertzen zaigunean, aditz honek oso “inguratzaille” gutxi, oso konplementu gutxi, ametitzen dituela bere ondoan. Bide beretik, ikusi egin beharko litzateke —baina horretan egitura hau erabiltzen dutenek dute hitza— ea (44) bezalako perpaus bat zuzena den ala ez:

(44) *Gaitz da manamenduen konplitzen*

Dena den, honelakorik ez dut aurkitu Axularrengan.

4. Berriro egiturara itzuliz

Eta zer ondorio atera daiteke hemendik? Badirudi hiru perpaus mota hauek badutela zerikusirik. Argiena, esan dudana bezala, lehenbiziko multzo-

¹⁷ Jakina, perpaus honi jarri dizkiodan galdera markek perpaus honen gramatikaltasunari buruzko nere iritzia adierazten dute. Dena den, nere presakako azterketa honetan ez dut horrelakorik aurkitu.

koen eta hirugarrenen artean gertatzen den baliokidetasuna da. Hala ere, eta esanahia alde batera utzirik, eta *-TZEN* agertzeko behar diren baldintzak zein diren ikusi ondoren, perpaus hauek duten sakoneko egitura zein den ikusten saiatu beharko genuke. Puntu hau da nerretzat ilunena eta eztabaidagarriena.

Har dezagun (45) bezalako perpaus bat:

(45) *Gaitz da IHARDESTEA*

Perpaus honen sujetoa zein da? *I HARDESTEA* dela dirudi. Hots: honelako zerbait izango genuke:

[Ihardestea]	[gaitz da]
IS	AS

Baina orduan, zein izango litzateke (46) perpausarena?:

(46) *Gaitz da IHARDESTEN*

Hemen, *I HARDESTEN* nekez izan daiteke sujeto (axaleko sujeto edo sujeto gramatikal, noski), *-N* atzizkia tartean dugularik. Baina hau ez da *gaitz* eta *erraz* bezalako adjetiboekin bakarrik gertatzen. Hor dugu *ahaztu* aditza ere, adibidez. Zein ote da (47) perpausaren sujetoa?:

(47) *EUSKARAZ HITZEGITEN ahaztu zaio*


Honen ordeaz, (48) bagenu:

(48) *EUSKARAZ HITZEGITEA ahaztu zaio*¹⁸

esanenez *euskaraz hitzegitea* dela sujetoa, baina (47)-an *euskaraz hitzegiten* sujetotzat har ote daiteke?

Behar bada, eta teoriaren aldetik oztoporik ez baldin badago, perpaus hauek denak nolabaiteko perpaus 'inpersonalak' edo, izan litezke, hots: sujetotzat gune 'huts' bat izango lukete. Horrenbestez, agian, (45) perpausak (49) egitura duela ematen badu ere,


(49)



¹⁸ Bi perpaus hauek duten esanahi desberdintasunaz ez naiz ari orain. Ik. P. GOENAGA, *Gramatika bideetan*, Donostia, 1980, 365orr.

(46) bezalako perpaus batek noizpait honako egitura duela dirudi:

(50)



Honek badu frantsesezko *il est facile de...* edo ingelesezko *it's easy to...* egituren antza. (50)-eko egitura hau harrigarri gertatuko zaio, agian, bati baino gehiagori, baina hain zuzen, badira aditz batzu sakoneko egituren bertan (50)-en antzeko egitura dutenak. Esaterako, ingelesez *begin* ('hasi') aditzarentzat Bresnanek¹⁹ egitura horixe proposatzen du. Horrelako egitura eskatzen duten aditzak nahikoa dira. Adibidez, Ruwet-ek bi sakoneko egitura gertatzen direla dio: a) [S] V X (hots: perpaus txertatua sujetoaren lekuan darama-

NP eta b) [Δ] V S X (hau da: sujetotzat Δ hutsa izango lukeena eta perpaus NP

txertatua (S) aditz sintagmaren azpian, osagarri bezala, eramango lukeena). Eta dio Ruwet-ek: "The various predicates which can occur at the surface level in the frame *il ... que S* fall into two groups whose syntactic behaviors strikingly differ in several respects"²⁰. Eta lehenbiziko egitura izango omen lukete, besteak beste, *être probable*, *être évident*, *être intéressant*, *ÊTRE DIFFICILE* (à NP) predikatuek. Ostera, bigarren egiturari erantzungo liokete *sembler* (à NP), *paraître* (à NP) moduko predikatuek.

Hortaz, euskaraz, agian *zail / erraz* -en sujetoaren lekuan joan liteke perpaus txertatua sakonean. Hemen hizpidea eman diguten egitura hauek, hortaz, (49)-ren antzekoa izango lukete. (45) eta (46) perpausentzat bi sakoneko egitura desberdin proposatu nahi ez badira behintzat. Horrela, bi egitura ez, bat baizik, baldin badugu, (45) eta (46) bezalako perpausak transformazio bidez erlazioatuak egongo lirateke, bata bestetik eratorria litzatekeelarik. Jakina, oinarrikoena formarik normalena izango litzateke, -TZEA forma, alegia. Zein izango litzateke transformazio hori? Ikus dezagun.

¹⁹ J. BRESNAN, *Theory of Complementation in English Syntax*, M. I. T., 1972, 117-137.

²⁰ N. RUWET, "Subject-Raising and Extraposition", in M. LUJAN & F. HENSEY (Ed.), *Current Studies in Romance Linguistics*, Georgetown University Press, Washington, 1976, 165 eta hurr. orr.

Ruwet-ek (1976) frantsesarentzat ematen dituen honako bi adibide hauetan gertatzen denaren pareko izango litzateke euskaraz behar dugun transformazioa ere:

(51) *Lire Saikaku dans le texte (n')est difficile*

(52) *Il (n')est difficile $\left\{ \begin{array}{l} * \emptyset \\ de \end{array} \right\}$ lire Saikaku dans le texte*

Euskaraz, hala ere, gauzak apur bat ilunago gertatzen dira, ez baitugu *il* edo ingelesezko *it* izenordain horien parekorik. Hortaz, bi egituren artean *extrapozizio* moduko transformazio bat izango genuke. Transformazio honek ongi zehaztu beharko luke perpaus txertatuaren sujetoa PRO denean bakarrik dela posible eta, gainera, dirudienez PRO horrek ez luke erreferentzia zehaztua izango, gorago esan dugunaren arabera. Hortaz, *-TZEN* agertzea transformazio horren ondorio bat izango litzateke. Noski, *-TZEN* agertzea ez litzateke derrigorrezko.

Gaztelaniazko 'fácil de' eta antzekoen ordaintzat eman ditugun euskal perpausak (bigarren sailean sartu ditugunak, alegia), behar bada, erdaraz bezala, IGOTZE transformazio baten ondoriotzat eman litezke. Eta funtsean gorago aipatu ditugun baldintzetan gertatuko litzateke transformazio hori: alegia perpaus txertatuko sujetoa PRO denean eta aditza iragankorra ²¹.

Extrapozizio edo bazterreratze (Josean Mujikak dioen bezala) ²² horren ondoren etorriko litzateke igotze transformazio hau. Extrapozizio horrek perpausaren IS-ren lekua hutsik uztean, libre egongo litzateke perpaus txertatuko IS objetoak bete dezan hutsune hori ²³. Horrela, ondoko perpaus honek, (53)-k alegia, (54) egitura izango luke:

²¹ Hala ere, hemen arazo bat dugu. Gaztelaniaz eskatzen dituen baldintzak ezagunak ditugu jadanik. Baina zer pasatzen da, adibidez, Xenpelaren bertso haiekin: *Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen*. Perpaus hauek ontzat ematen badira, esan nahi du euskaraz gauzak ez direla hemen agertzen ditugun bezala, zeren, bertso horietan, nik ulertzen ditudan bezala behintzat, badirudi ez dela objetoa *igotzen* sujetoa baizik. Alegia, badirudi sakonean honelako zerbait dugula:

	[gu umiltzea]	[gaitza da]
	IS	AS
eta ez,	[PRO-k gu umiltzea]	[gaitza da]
	IS	AS


Arazo bat.

²² J. A. MUJIK, "(e)LA eta beste konpletibatzaileak", Euskaltzaindiari aurkeztutako txostena.

²³ "(58) a.—*Il est difficile de rendre justice*; b.—*Justice est difficile à rendre* (...)

Des phrases telles que (58 b) (...) s'expliquent facilement si on les dérive (...), des structures sous-jacentes à (58a)" dio N. RUWET-ok (ik. *Théorie syntaxique et syntaxe du français*, 60 orr.).

(53) *Langile horiek lana garaiz amaitzea zail(a) da*



Hemendik, extraposizio edo dena delakoaren bidez, perpaus txertatua aditz sintagmaren eskuitara pasa daiteke:

(55) *Zail(a) da langile horiek lana garaiz amaitzea*

Hemen extraposiziorik ez dela izan, ordena aldaketa soila baizik, pentsa liteke. Hala ere, (53) perpausaren ordeztu perpaus txertatuko sujetoa PRO erakoa duen bat badugu, posible da leku aldatze horrezaz gainera -TZEN agertzea, -TZEAREN ordeztu:

(56) *Lana garaiz amaitzea zail(a) da*

(57) *Zail(a) da lana garaiz amaitzen*

Eta hemen extraposizio edo antzeko zerbait gertatu dela pentsa daiteke, -TZEN forma hori nekez izan baitaiteke perpausaren sujeto.


Urrats hau emateko, dirudienez, ez da beharrezko aditza iragankorra izatea. Zenbait adibide eman dugu lehen. Hona hemen haietako bat berriro oroigarritzat:

(58) *Erraz da erortzen, zail zutitzen*

Baina aditza iragankorra baldin bada, gorago aipatu dugun pausoa eman daiteke, hots: perpaus txertatuko objektoa perpaus nagusiaren sujetoaren lekura igotzea. Hortaz, (59) perpausa eratoritzeko honako urrats hauek beharko ditugu:


(59) *Liburu hori zail da aurkitzen*

Honen sakoneko egitura, (60) izan liteke:




Hemendik, extraposizio bidez edo, (61) egitura sortuko litzaiguke ²⁴:

(61)



Eta azkenik, *liburu hori* perpausaren izen sintagmaren hutsunera igoaz, (62) egitura izango genuke:

(62)



Baina lehenago egin dugun galdera berriro egin dezagun: ondoko bi perpaus hauek esanahi bera al dute?:

(63) *Liburu hori zail da aurkitzen*

(64) *Liburu hori aurkitzea zail da*

Dena dela, *zail* edo *erraz* izan beharrean *on* edo *egoki* adjetiboekin ariko bagina, garbi legoke (63)-(64) perpausen artean egon daitekeen aldea baino mila bider handiagoa dagoela (65) eta (66) perpausen artean:

(65) *Okela hori ona da erreta jateko*

(66) *Ona da okela hori erreta jatea*

Hautan igotze transformaziorik ez genuke beharko: bakoitzaren azpian egitura desberdina izango litzateke. Gainera, zergatik dira *zail* eta *erraz*, eta hauen familiako beste bakarren batzu, bakarrik *-TZEN* forma eskatzen dutenak? Beste adjetiboekin ez dugu *-TZEN* aurkituko *-TZEKO* baizik. Beraz, hizpidea eman diguten adjetibo hauek tratu berezia eskatzen dutela dirudi. Eta tratu hori ematen saiatu gara. Ez dakit, hala ere, hemen proposatu dugun bidea zuzena den. Jakina da zenbait igoera transformazio oso badaezpada-koak direla. Euskaraz, bestalde, beste hizkuntza batzutan baino urriagoak

²⁴ Hau hobeto formulatu beharko litzateke, egitura "preserbatu" nahi baldin badugu (ik. J. EMONDS, *A Transformational Approach to English Syntax Root, Structure-Preserving and Local Transformations*, 1976).

direla dirudi. Hala ere, banaka batzu izan daitezke euskaraz ere²⁵. Eta, hain zuzen, banaka horietakoa genuke hemen proposatu duguna.

Eta amai dezadan. Ikusi dugu problemak batez ere teoria mailan sortzen zaizkigula. Hemen bide bat eskaini dut, beste hizkuntza batzuri buruzko ohiko azterketetan eskaintzen denaren antzekoa, baina behar bada froga handiegirik eman gabe. Hortaz, lantxo honek hipotesi kutsu handiagoa du erabateko froga batena baino. Hala ere, lehenbiziko bide urratze gisa, agian balio dezake. Zer esanik ez dago edozein momentutan iritiz aldatzeko prest nagoela, euskarazko datuak beste era egokiago batez esplikatzeko bidea aurkitzen bada. Gauzak esatea erraza da. Frogatzea zailago. Eta hemen, zoritxarrez, froga gutxiegi eman ditugu.

²⁵ Adibidez, lehen begiratu batean behintzat, badirudi *irudi* eta *eman* aditzetan horrelako zerbait gertatzen dela. (a) esaten badut

(a) *Andoni lapurra dela* $\left\{ \begin{array}{l} \textit{dirudi} \\ \textit{ematen du} \end{array} \right\}$

Andoni lapurra dela nekez izan daiteke *ematen du*-ren sujetoa, *-K*-rik ez duen sintagma bat nekez izan baitaiteke aditz iragankor baten sujeto. Gehiago dirudi objektua edo, dela. Hala bada, pentsa genezake, perpaus horiek inpersonalak direla, hots: izen sintagmatzat gune huts bat dutela. Eta behar bada, *igotze* transformazio bat gerta liteke hor (b) moduko perpausak sortaraziz:

(b) *Andonik lapurra dela* $\left\{ \begin{array}{l} \textit{dirudi} \\ \textit{ematen du} \end{array} \right\}$

Hala ere, hemen oztopo teoriko bat dugu, perpaus hauetan *igotzerik* balego, TENSED SENTENCE CONDITION delakoa ez baikenuke errespetatuko. Baldintza horrek balio badu, behar bada (b)-ko perpausentzat beste bideren bat aurkitu beharko dugu. Dena den, hemen ezin gara horretan hasi, arazo larriegietan sartuko ginateke eta. Baina, behar bada, *hasi* edo *ari* eta antzekoetan *igotze* transformazioren bat badugu, batez ere lehenago aipatu dugun Bresnan-en bidea ontzat ematen bada.

Beste aditz bat, alde honetatik aztertzeko modukoa, *merezi* izango. Izan ere hiru egitura aurkezten dizkigu: *merezi du etxe hori erostea* / *merezi du etxe hori erosteak* / *etxe horrek merezi du erostea*. Baina utz dezagun kontu hau hemen. Garbi dagoena da euskaraz askoz mugatuagoa dela *igotze* transformazio hau beste inguruko hizkuntzetan baino. Alde honetatik, aztertzekoa litzateke Chomskyren “move α ” delakoa zertan den euskaraz. Noski, hau oraingoz gure ikuspegitik kanpo gelditzen da. Baina heldu beharko zaio noizpait gai honi.

**ZEHAR GALDERAK: BA-
DENBORAZKO PERPAUS TXERTATUEN ADIBIDE
KURIOSO ZENBAIT**

Donostia, 1982-V-28

Miren Azkarate Villar

Aita Fray Pedro Antonio Añibarro: escu-liburua ta berean eguneango cristiñau-cereguñác

Añibarroren *Escu-liburua* irakurtzean aurkitu ditudan puntu harrigarri batzuk aipatu nahi nituzke lantxo honetan. Honako hauek hain zuzen ere:

1. Zehar galderak.
2. Denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso batzuk.

Zehar galderak

Guztiok dagiku -N dela horrelako perpaus txertatuek daramaten erlazio atzizkia. Bestalde, galderazko perpausak bi eratakoak izan daitezke:

- bai/ez motakoak,
- galdetzaileren bat erabiliaz egiten ditugunak.

Azken hauek Añibarrok -N atzizkia aditz laguntzaileari loturik osatuko ditu, normalean egin ohi den bezala:

“ta ulertu eidazu cer eguin, ta cer ichi bear dodan Jangoicoaren borondatea betétaco” (1’).

“Gogorà ecartzu, cer zarean zu, ta cér Jangoicoa” (14).

“Beguir a zaitez, celàn vici zarean: aracatu, cetan utseguiten dòzun: cec jausi ta irau-erazoten-zaituas aracò ecanduzco becatuan” (15).

“Erabagui orain ganic celan emongoduzun demporeà” (23).

Aldiz, bai/ez motako zehar galderetan ez du -N erabiliko erlazio atzizki bezala, BA- baizik. Hauek dira nik jaso ditudan adibideak:

“eztàquit eldùco banas arratserà” (7).

“Beguiratu, gogarte onec adierazoten deutsuen antzera vici bazarà” (15).

“eta beguira, ondo eguin badozuz lenagoco confesiñoac” (45).

“eta eztàquit eguiaz, Jangoicoac parcatu badeust” (53).

“eta benetan, eztaquit, jausicò banas, ifiniric pelligrú, ta galvidean” (53).

“Beguira, celan eguin-cenduan lenagoco Confesiñoa lotsaz, edo azturic ichi ete cenduan becuric; cumpli-bozuz Confesoren aguinduac... ucatu-badozu fedea: sinistu-bozu cerbait... edo egon bazara vorondatez badaezpadan, alan danez.

Iracasi edo esan badozu, becatu dana, eztala... uste-izan badozu, deunguero vici arren beti, salvatuco zareala... Euqui badozu gorrotoa Jangoicoagan... Emon bozu siniste osoa sorguinqueria, ismu uts, etorquizun amese-coai... Jangoico, edo Santuen contra birao, edo madaricaciñoric ezarri bozu... Promes, edo votoren bat cumpli-zaga, ichi badozu.

Elexan ostu, edo beste gauza charric eguin badozu: Eguin badozuz bere demporan Fede, Esperanza, ta Caridadeco eguintzac” (126-28).

“Beguira, eguin badozu juramentu guzurrezcoric...

Calteren bat iñori etorri bajaco... juramentu eguin badozu.

Emon-badozu videa besteai, guzurraz juramentu eguiteco...

Ezarri-bozuz biraoac...” (128-9).

“Adi-zaitte, celan emon dozuzan Jaiac, ta Domecac: Mez osoa ondo, ta beti-enzun-bozu: Mezea uts eguiteco pelligruan ifini bazara: iñor zure erruz enzun бага gueratu bada: Mezan vorondatez devociño бага egon bazara...

Premiña andi бага, bearric eguin, edo eguin-erazo badozu...

Santutu badozu Jai-eguna; eta berean becuric eguin dozunez: edo egu-nic gueiena jocoan, dantzan, ordi-lecuetan emon dozunez... Barau zaro egu-netan baraua galdu; araguia jan; nastatu arraiñaz; edo besteai janerazo badeutsazu, eurac ez equiela.

Garizuma demporan arrauntzac, gaztaya, edo ezne-jaquiric jan bozu Bulde бага.

Amarrenac, ta Primiciac zucen pagatu badozuz” (129-131).

“Beguira, galdu badeutsezu lotsea, obediencia, ta zor jaquen erreverencia ceure Guraso, edo Nagusiagoi: euqui badeutsezu, gorroto, beguiracune, gogortaderic; esan badeutsezu verba astumc... edo azau bozuz zarzaro, edo premiña demporan” (131-132).

“Guraso, edo Eche-Burua bazara, beguira ondo, celan, ta nondic dabilzen zure hume, ta oguipecoac... gaubaz echeric campora badabiltz: lau, bost urteric aurrera seme-alabac oean alcarre-gaz badatzaz...” (132).

“Gomute-zaitte, iñori gorrotoric euqui; gachic eguin... ondamu, eta icusi ecinic, euqui bozu... edo hume sortua ceure erruz galdu bozu; edo galduteco videric emon badozu.

Jan-edanean igaro, edo orditu bazara; edo jaquinic gach eguingo deutsula artu; edo besteai artuerazo badeutsazu jan edan caltegarriric” (133-134).

“Beguira emen... au eguiteco gogoa, ustea, edo guraria euqui badozu” (135).

“Beguira, ostu, edo ostuteco gogoa euqui badozu” (136).

“Beguira... tratu ta ameterietan vide baguetasunic eguin badozu” (137).

“Gogortu-eizu, guzurric esan bozu; eta bera esateaz, calte, edo aserracuntzaric erne bada” (137-8).

Honaino, bai/ez motako zehar galderan aditzak BA- daraman adibi-deak.

Hala ere, adibide hauetan beste forma bat ere ikusi dugu: -NEZ. Orain arte azaldu zaizkigun adibideez aparte liburuan aurkitu ditudan besteak hauek dira:

“Beguira... gogoz, esatez, edo eguitez ernegarazo dozuzanez” (132).

“Beguira emen, araguizco becuric pensamentuz, edo obraz eguin dozunez: euqui dozunez escuca loi, edo tocameturic, edo gauza ciquiñic ceuc ceure gorputzaz, edo besteacaz” (134).

“esaizu aidea, ezcondua, edo Voto castidazecoaz esturic dagoanez” (135).

“Bai ta confesa zaitte, badozu duda eguiazcoric au edo beste desonesqueria eguin, edo confesau dozunez” (136).

“Beguira... iñoen ondasunean calteric eguin, lagundu, aguindu, edo eguiteco vide deunguea emon; edo gauza ostua artu, edo estaldu dozunez.

Saldu-erosietan, artu-emonetan pisu, ta neurrian, joco, ta beste onela-coetan, trampa ta engañuric sartu dozunez: tratu ta ameterietan vide baguetasunic eguin badozu. Gauza charra, ontzat: merquea, carutzat: pisu laburra, betetzat emon dozunez” (136-137).

“Gogortu-eizu...nñogatic deunguero esan; gogo onaz enzun; juzgu deungueric arin eguin; besten uts-eguite, eta argaltasun ixilac zabaldu, ta aguertu dozunez” (138).

“bada eztaquit, berau danez azquenengo Confesiñoa” (149).

Beraz, ifarraldekoek erabili zuten -N + EZ erabiliko du, nahiz -N bakarrik ez erabili. Eta, noski, noiz bat eta noiz bestea, ez dut uste erregelarik eman daitekeenik.

Baina bada hirugarren galdera mota bat ere: erretorikoa, guk OTE-ren bidez egiten duguna, alegia. Eta hemen, bai, -Ndun forma erabiliko du zehar galderako aditzean!

“Euqui arren demporea, euquico eté dodan ataracò gogoà, eta boronda-teà” (61).

“Beguirà, celan eguin-cenduan lenagoco Confesiñoa: lotsaz, edo azturic ichi ete cenduan becuric; cumpli-bozuz Confesoren agunduac, ta penitenciac” (126).

“Bildur nas euquico ete dodan astia, elduteco Confesorearen oñetara!” (140).

Lehen puntu honetan esandakoa laburtzeko, honako eskema emango genuke:

a) Galdetzaile bidez egindako zehar galderetan -N.

b) Bai/ez motako zehar galderetan aditzak -NEZ edo BA- hartuko du erlazio hizki bezala, baina ez -N soilik.

c) Zehar galdera OTEren bidez emana badator, -N soilik aurkituko dugu.

Eskema honetako lehen bi puntuen arteko diferentzia ondo asko ikus daiteke azken adibide honetan:

“Guraso, edo Eche-Burua bazara, beguirà ondo, celan, ta nondic dabilzen zure hume, ta ogupecoac; celan daquien Doctrinea: nos confesetan direan: nogaz lagunduten direan: gaubaz echeric campora badabiltz: lau, bost urteric aurrera seme-alabac oean alcarre-gaz badatzaz...” (132).

Badirudi BA- horren eravilera espainolaren eragina litzatekela, gaur egun batez ere gazteen artean indar handia hartzen arituko litzatekelarik.

Denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso zenbait

Denborazko perpaus txertatuetan, beste forma batzuekin batera, -ENEAN daraman aditza erabiltzen dugu txertakuntza mota hori adierazteko. Añibarrogan ere aurkituko dugu horrelako adibiderik:

“*Zorion beticoa*, esan oieban leguez San Felipe Neric, opa eutsenean andiqueria bat” (63).

“ce lotsari gogorrean icusi cinian, billostu cinduenean neurribaco genteen aurrean” (201).

“Jaio zanean Zure Semea beti Doncella zu ichiric” (218).

“Jerusalengo Elexan bere Semea Ama Virgiñeac opa, ta esquiñi eba-
nean” (219).

“Berroquei egun igaro eta/Cerura igo zanean/gloriotsua an jarri eban/
Aita bereac aldean” (224).

Baina, nolabait esatearren forma “normal” hauekin batera, lau bider, segidan, eta atal horretan bakarrik, NOS menpeko perpausaren hasieran ipi-
niaz egingo du subordinazioa (aditzari -N erantsiz, azkenengoan ezik):

“Fedeac iracasten deuzcu, ta Jesu-Cristoc adierazo euzcuzan Judicio
aurrean jasoco direan icusgarri icaragarriac.

I. Izango dira asco, ta andiac...

II. Izangò dira nos guichien uste dogun: nos mundutarrac guichien
ichadongò dabèn: nos munduan becatu gueiago eguingo dan; eta nos mun-
duac, onduteco, demporaric euquico eztabenean” (39).

Nola interpretatu datu harrigarri hau? Alde batetik badakigu Añibarrok
lapurtarrak ezagutzen zituela (Axularren *Gero* berak itzuli zuen bizkaierara)
eta pentsa daiteke haiek erabiltzen zuten “noiz eta ere” egituraren antzeko
zerbait erabili nahi izan zuela:

“Mariana gizon jakintsun hark noiz eta ere arbuiatzen, eta mesprezatzen
baitu bere ustez gure eskuara, orduan emaiten darot...” (Etxeberri Sarakoa).

Baina orduan ez genuke izango azken kasuko -ENEAN; gehienez ere
lapurtarren BAIT-en ordeaz, -N genuke euskaraz.

Beste interpretazio posible bat “kalko”arena litzateke, nahiz eta arraro
samarra izan hain erdarakada nabarmenean erortzea.

DIALEKTOLOGI SAILA

GARESKO EUSKARARI BURUZ ZERBAIT

Iruñea, 1982-I-29

Frantzisko Ondarra

Bonaparte Printzeari esker, badakigu duela ehun bat urte nolakoa zen Gares-en hitz egiten zen euskara. Ezaguna da euskaltzaleen artean berak Londres-en argitaratu zuen *Le Cantique des Trois Enfants* edo *Hiru gazteen Kantika* (1); bertan Elkano, Gares, Oltza eta Goñi-ko itzulpenak ematen dizkigula. Beste lan batean ere, *Le verbe basque en tableaux* edo *Euskal aditza paradigmatan* (2) izena daukan liburuan, badago aipamenik noizean-behin Gares eta beste hiru herri horietako euskarari buruz. Bainan inprimatu gabe ere utzi zuen gairik frango, eta beldurrik gabe esan dezakegu askoz gehiago utzi zuela inprimatuetan baino.

Arritzekoa bada ere, ez Nafarroa-ko Aldundiaren Artxibuan, baizik eta Bizkaiko Aldundiaren Liburutegian (3) aurkitzen ditugu oraindik argitaratzeko dauden gauza asko. Horietan aipatu behar ditugu mila eta hirurehun (1300) bat hitzek osatzen duten hiztegitxo bat (4); bostehun-eta-hogeiren (520) bat zertzelada morfologiko (5); fonetika, morfologia, sintasia eta aditza ikutzuen duen nahaste-borraste bat (6); eta, azkenik, aditz laguntzailearen adizki guziak, alokutiboak eta guzti (7). Espero dugu hauek denak laster izango direla inprimatuak, aurrean bertan edo.

Esandako den hauek Elkano, Gares, Oltza eta Goñi-ko euskararen berri ematen dute. Noiz bildu zituen Printze haundiak xehetasun hauek? Badakigu nahiko ongi 1869. urtearen inguruan eskuratu zituela. Hiru urte lehenago 1866. urteko Abuztuan, ez zekien ezer garbirik Gares, Oltza eta Goñi-ko eus-

-
- (1) BONAPARTE, Louis-Lucien: *Le cantique des trois enfants dans la fournaise*. Londres, 1969. (Ikusi "Deuxième partie, Observations".)
 - (2) BONAPARTE, Louis-Lucien: *Le verbe basque en tableaux*. Londres, 1969.
 - (3) GONZÁLEZ ECHEGARAY, C.: "Catálogo de la Colección del Príncipe Luis Luciano Bonaparte que se guarda en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya". *Euskera*, VII, 1962, 219-258. (Ikusi 48, 69 eta 78. zenbakiak.)
 - (4) Ikusi 3. oharpenean aipatu dugun lana eta bertako 48. zenbakia.
 - (5) Ikusi 3. oharpeneko lana eta 48. zenbakia.
 - (6) Ikusi 3. oharpeneko lana eta bertako 69. zenbakia.
 - (7) Ikusi 3. oharpeneko lana eta bertako 78. zenbakia.

karari buruz, Bruno Echenique'ri idatzi zion gutun batetik ikusten denez (8). Honela dio eskutitz hortan: "Gares-en, esan didatenez, euskara ia ilik dago eta oso diferentea da", hau esatean Oltza eta Goñi-ko euskararekin gonbaratzen du batez ere. Urte horretako Abenduan (9) ez zuen oraindik Oltza-ko hitz zerrenda eta besterik hartu, eta pentsa dezakegu ez ta Gares-korik ere. Bestalde, lehen aitatu lanak, 1869. urtean izan ziren argitara emanak, eta horietan oso ongi ezagutzen du Gares eta beste herri horietako euskara. Gainera, hiru urteko tarte horretan, ibilaldi bat egin zuen Nafarroa-ra, hemengo euskalkiak hobeto ezagutzeko. Berez, urte horietan jaso zituen bere oharrak, Gares-en izan zuen laguntzailea *José María Otamendi* zelarik.

Egia esan, gaur hemen aipatuko ditugunak ez dira denak berriak. Ainguru Irigarai'k zabalduak ditu horietako zenbait, adibidez, geroaldia egiteko erabiltzen den *-ko* atzizkia (10): *emanko*, *janko*, *juanko*, beraren inguruko herrietan *emain*, *xain* eta *joain* egiten delarik; baita Gares-en *jota* esaten dela ere, gaztelaniaz erabiltzen den bezala (11). Bestalde, *-ko* atzizkia Gipuzkoa aldetik, Lizarraga-tik barrena edo, etorria izan daitekeela dio, eta badaitekeela beste alderen batean ere aurkitzea.

Hain zuzen, berak aurkitu zuen atzizki hori bera Uterga-ko Kristau Ikasbide batean, hamazortzigarren mendean idatzirik dagoen batean.

Gares-ko euskarari buruz zenbait xehetasun

Fonetika.—Nabarmenena lehen esan dugun *jota* hori da, beraren inguruko euskalkian —goi nafar hegoaldekoan—, *ixa* ahoskatzen den bitartean: *jan*, *jakin*, *jo*, *jarri*, *jaiki*, *jaito*, *jai*, *jokatu*, baina Elkano, Oltza eta Goñi-n: *xan*, *xakin*, *xo*, etab. —hala ere, lau herrietan: *jauna* eta *joan*—. Adi dezagun beste adibide bat ere: Gares-en *txujen* eta *txujentasun* ahoskatzen den bitartean, beste hiru herrietan, *txuxen* eta *txuxentasun* da.

Morfologia.—Goian esan dugun bezala, *-ko* atzizkia da jakingarri morfologian, aditzari gagozkiola. Baina erabiltzen da baita ere *-en* atzizkia; beraz, *janko* eta *jain*, *emanko* eta *emain* (14). Hau bera gertatzen da Uterga-

(8) URQUIJO, Julio de: "Cartas escritas por el Principe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores". RIEV, IV, 1910, 233-297. (Ikusi 294. orrialdea, goian.)

(9) Ikusi aurreko oharpeneko lana eta bertako 295. orrialdea.

(10) IRIGARAY, Angel: "Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional". IV Symposium de Prehistoria Peninsular. Pamplona, 1966, 261-269. (Ik. 264. orrialdea.)

(11) IRIGARAY, Angel: "La obra del Principe Bonaparte". BSVAP, XXII, 1966, 67-74. (Ik. 73. orrialdea.)

(12) Ik. GONZÁLEZ ECHEGARAY, op. cit., 69. zenbakia batez ere. Honekin ez dugu esan nahi Elkano, Oltza eta Goñin *jotarik* ez dagoela, eta hitz askotan gainera.

(13) GONZÁLEZ ECHEGARAY, op. cit., 69. zenbakia.

(14) Op. cit., 78. zenbakian.

ko Kristau Ikasbidean, *emanko* eta *emanen* aurkitzen direla (15). Gipuzkoa aldetik etorria daitekeela izan? Ez dakigu, baina daitekeena da.

Hala ere, ez dugu aurkitzen ez Goñibarko Munarriz-en, ez Gesalaz-ko Muzki-n gorderik zeuden sermoietan; baina ezin dugu isilik eduki Munarriz-ko sail batean ageri dela *-ko* hori, eta beti ta bakarrik; ez da harritzekoa, ordea, sail horretako hitzaldiak gipuzkeraz bait daude (16). Gainera, badakigu Bakaiku-n *yanko dau* eta *yain dau* esaten dela, eta baita *jainko dau* ere, beraz, biak batean: *jainko* ‘janenko’ bait da. Eta ez dugu ahaztu behar Bakaiku biderik aproposenetakoa dela Gares eta Gipuzkoa edo Probintziaren arteko harremanak eramateko.

Aditzaren arlotik atera gabe, Garesen gertatzen dira konglomeraturik aipagarrienak: *jatongu* eta Elkano ta Oltzan *xaten dugu*; *jatontze* eta Elkano ta Oltzan *xatauntze*, *-tzie* ‘jaten duzue’; *jankot* eta besteetan *xain dut*, etab.

Izenari dagokiola, *ehun* esateko bai *egun* eta bai *bortzetanogei* ikusten ditugu (17). Oltza eta Goñin bezala, *Pedroren* ordez Pedron da, Elkanon *Pedroin* delarik. Garesen *-kin* atzizkia erabiltzen da gehien bat, beste herrietako eta euskalki honetako bereizgarri den *-Ki*’ren ordez (18).

Hiztegiaren arloan, beste herrietan baino askoz ugariago ageri dira erdal hitzak, adibidez hilabeteen izenak: *enero*, *febrero*, *martxu*, *abril*, *maiatz*, *junio*, *julio*, *agosto*, *sietenbre*, *otubre*, *nobienbre* eta *dezienbre*. Arkoiris hemen, Elkanon, *jangoikoinpaxa* eta Oltza ta Goñin *jangoikoinpaxa*; eta beste asko. Hiztegiaren eremua da erdaldunduena, deklinabidea eta adizki-ena, alokutibozkoak eta guzti, ia zulorik gabe dagoela.

Escalonilla-ko apaizak (19) dioenez, Garesen *gizone* da eta ez *gizona* singularrean; *ardoek*, ez *ardoak* pluralean; eta baita *ardoik* ere zenbaiten ahotan. Bonapartek bildutako gaietan ez dira ageri fenomeno horiek, baina Utergan aurkitu zen dotrinan lehen aipatu duguna gertatzen da, ez ordea beti; beraz, *Demonioe*, *premioe*, *confesioe* etab., bainan baita ere *espliquecioa*, *justoa*, *humanoa*, etab.

Uste dugu honenbestez nahikoa dugula gaurkoz gai honi buruz. Baina lehenbizi nahi ditugu irakurri zenbait bertso. Bertsook Bonaparteren agirietan daude, Gonzalez Echegaray-ren lanean 69. zenbakian. “Mariya, nora zuaz”-

(15) ONDARRA, Francisco. “Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)”, FONTES, 1980, 173-221. (Ik. 176. orrialdea.)

(16) ONDARRA, Francisco: “Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan.” EUSKERA, 1981, 349-365. (354. orrialdean aipatzen dugun 10. saileko sermoietan.)

(17) GONZÁLEZ ECHEGARAY, op. cit., 48. zenbakian, 927 ta 928. hitzak.

(18) Berdin, 48. z., 10 zenbakiarekin markaturik dagon orrialdean.

(19) IRIGARAY, Angel: *Una Geografía Diacrónica del Euskara en Navarra*. Pamplona, 1974. (Ik. 75. orrialdea.)

ONDARRA, F. Ik. 15. oharpeneko lana, orrialde hauek: 207, 208, 210 s.

en familikoak dira, eta uste dugunez, Elkanon hartuak izan ziren, *Ferretain* 'ferretaren' erabiltzen bait dute, eta ez Gares, Oltza eta Goñiko *ferretan*. Entzun ditzagun.

Katálin errotáko
 Edér galánt ori
 Itúrrirá banoáye (-noa- silaba bat bakarra)
 Nai báuzu etorri
 Iturrira joan-eta
 Ttanta bat goragó (*tt* bikoitzak, *t* bakarrak "tilde"-rekin)
 Aritz baten atzéan
 Galai bat an dagó.
 Ferretain betetzéan
 Biak musus musú
 Orduan gal in zio
 Zembat urte tuzú?
 Amazazpi-emezórzi
 Orá (sic) eztut kumplitu
 Lagunik bazinduke
 Yosta zindaizkezú (*Yosta*, beitiago *josta*)
 Jende eben alkez, eta (*geben*, bainan *g-* kendurik)
 Echekoen beldurres
 Dakizunas gerostik
 Ala 'isimulatzen (*disimulatzen*, bainan *d-* kendurik)
 Ferréta utzi-eta
 Biok josta gaitzen (*josta*, goian *Yosta*)

(Erdaldunik izango zelakoan, erdarazko laburpen hau egin nuen, eta Garesko euskarari buruz kondaira kontestu edo inguru bat eman nuen.)

* * *

Ajustándonos al título de esta ponencia, que es *Algo sobre el euskara de Puente la Reina*, hemos hecho un brevisimo estudio de algunas características de esta variedad del dialecto alto navarro meridional, que se extendía desde Roncesvalles hasta la Ribera. Nos hemos servido para ello de obras impresas por el Príncipe Luis Luciano Bonaparte, sobrino carnal de Napoleón Bonaparte y primo de Napoleón III, Emperador de los franceses (20). Hemos utilizado también manuscritos con materiales que contienen vocabularios, la conjugación completa del verbo auxiliar, incluidas las formas alocutivas, y fenómenos diferenciadores de variedades dentro de un mismo dialecto en el euskara de Puente, Elcano, Olza y Goñi. Y todo ello hace un siglo, más en concreto, el año 1869 (21).

(20) Ik. 1. eta 2. oharpenetan aipatzen ditugun lanak.

(21) Ik. 3. oharpenean aipatzen den lana.

Hemos visto la existencia del fonema *jota* en Puente, mientras en los restantes pueblos se daba el de *ixa* en las mismas palabras, lo que no quiere decir que en estos otros pueblos no se dé la *jota* en otras voces.

En punto a morfología, hemos repasado lo dicho por Bonaparte y por A. Irigaray sobre el uso del sufijo *-ko*, en lugar del sufijo *-en*, para formar el futuro. En Puente se dan ambas formas, fuera de Puente sólo la segunda; aunque en el catecismo del siglo XVIII, de Uterga, se da el mismo comportamiento de Puente. Hemos visto grandes contracciones de verbo principal y auxiliar, y alguna otra cosa. El vocabulario es el más castellanizado de los cuatro lugares que compara Bonaparte. Hemos concluido con la versión de Elcano, creemos, de una conocida canción vasca.

Extrañará tal vez a alguien la vitalidad del euskara en el pueblo que nos ocupa. Pero debe saberse que en todo Valdizarbe, con una prolongación hasta Baráscain y Garinoain en Valdorba, había una minoría más o menos numerosa de hablantes nativos de la lengua ahora perdida. Y estamos hablando del año 1869, y del *Mapa de las Siete Provincias Vascas*, que así se expresa el Príncipe (22). Todavía hoy se conservan en Legarda, a unos 7 km. de Puente, restos de canciones de cuestación, como puede verse en la revista FONTES (23).

El catecismo manuscrito de Uterga, del siglo XVIII (24), y los sermones de que dio un adelanto José María Satrústegui, hallados en Muruzabal (25) de Valdizarbe, de la segunda mitad del siglo XVIII y acaso también del XIX, abonan cuanto venimos diciendo. Mención especial merece el abad de Uterga Juan de Beriain, escritor en vascuence del siglo XVII.

Enumeraremos otros testimonios de la vida de nuestra lengua en este valle: en 1562 la señora del Señorío de Sarriá (26) no sabe romance; el "sacristano" del Crucifijo (27) de Puente amenaza en vascuence en 1589; fr. Juan de Jesús San Joaquín (28), nacido en Añorbe en 1590 —su padre era

(22) BONAPARTE, Louis-Lucien. *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes eta variétés* Londres, 1963 (bainan 1869. urtean izan zen argitaratua).

(23) Ik. 15. oharpenean aipatzen den lana eta bertan 174. orrialdea.

(24) Ik. 15. oharpenean aipatzen den lana.

(25) SATRÚSTEGUI, José María. "F. Ondarra Euskaltzain berriari erantzuna". EUSKERA, 1981, 651-660. (Ik. 657-658 orrialdeak batez ere).

(26) IDOATE IRAGUI, Florencio. *El Señorío de Sarriá*. Pamplona, 1959. (Ik. 219. orrialdea.)

(27) Aurreko lan hortan bertan, 257. orrialdean.

(28) Padre Fray Joseph de la Madre de Dios. *HISTORIA de la vida, y virtudes del venerable hermano, IVAN DE IESVS SAN IOAQUIN, carmelita descalzo...*, de la Ciudad de Pamplona. Madrid, 1684. (Ik. 366. orrialdea: "y aunque el language Castellano que hablava (sic), era poco limado, porque nunca lo habló con expedición (que el suyo natural era Vasquence) con todo, lo sentencioso, y prudencial, era mucho, y se declarava (sic) bastantemente, en especial, quando oe le pedia fonsejo, y parecer").

hijo del palacio de Leoz—, tenía como lenguaje natural el vascuence; en 1592 en Puente (29) se habla el “lenguaje Vizcaino o Vascuence y el pueblo es muy dulce y tratable”; don Juan de Undiano, ermitaño de Ntra. Sra. de Arnotegui (30) desde 1586 hasta 1633, compone “muchos versos en bascuence y algunos en romance en materia moral y espiritual”; el capuchino P. José de Añorbe (31) predica en su lengua a los del valle de Araiz en 1761; el también capuchino P. José de Puente la Reina (32) es misionista vascongado en 1777; el cura de Escalonilla (33) habla del euskara de Puente en 1806; el alcalde hace de intérprete porque el tabernero (34) no entiende castellano en 1820; y no olvidemos la toponimia actual (35).

Retrocedamos al año 1638 y veamos lo que sucedió en el sitio de Fuenterrabia (36). El Marqués de Torrecusa, maese de campo general, “habiendo repasado las filas de este tercio —el de los navarros—, halló que estaban hablando entre sí con algún enfado *en vascuence*”, porque no se daba la orden de avanzar. Se trataba de 900 soldados, de los cuales 600 eran del tercio de D. Fausto de Lodosa, señor de Sarria, siendo sus capitanes D. Francisco Garro, hermano del Conde de “Xabièr”, D. Diego de S. Cristóbal, D. Joseph Vayo, D. Joseph Reta, D. Joseph Muruzábal, D. Bartholomé Baygorri, D. Juan de Amezaga Lezea y D. Blas Rodríguez; los otros 300 iban al mando de los capitanes D. Pedro de Ayanz, D. Juan de Egüés y D. Francisco Eguia Beaumont, es decir, la flor y nata de la nobleza navarra. Dada la orden de ataque, capitanea al frente del tercio navarro y de la compañía de los de Sangüesa D. Francisco Garro, en primera fila. Uno quisiera saber qué idioma hablaban estos señores y los de Sangüesa. El traductor de la obra escrita en latín por el P. Moret en 1654 es Manuel Silvestre de Arlegui, natural de Pam-

(29) GARATE, Justo: “Viaje de Felipe II por la Rioja y Navarra en 1592”. PRÍNCIPE DE VIANA, 1979, 429-443. (Ik. 437. orr.)

(30) ESTORNES LASA, Bernardo y Mariano: “un cancionero vasco del s. XVIen Obamos”. *Fontes*, 1970, 231-233 (Ikus. 232 orrialden batez ere).

GOÑI GAZTAMBIDE, José: “La vida eremítica en el reino de Navarra”. PRÍNCIPE DE VIANA, 1965, 77-92. (Ik. 83 ta 86. orrialdeak. Gainera bazeukan “Un libro Cancionero, de mano, *en vascuence*”: Ik. 85. orr.)

(31) ANORBE, P. Fr. Celestino de: *La antigua Provincia Capuchina de Navarra y Cantabria (1578-1719)*. Pamplona, 1951. (Ik. 406. orrialdea.)

(32) RIEZU, R. P. Crispin de: *Necrologio de los Frailes Menores Capuchinos de la Provincia de Navarra-Cantabria-Aragón*. Pamplona, 1958. (Ik. 143. orr.)

(33) Ik. 19. oharpeneko lana eta han aipatzen den orrialdea.

(34) IRIGARAY, Angel: “Notas sobre la antigua lengua”. PRÍNCIPE DE VIANA, 1961, 101-104. (Ik. 102. orr.)

(35) LEGARDA, P. Anselmo de: “Uterga en su catastro de 1854”. *Fontes*, 1976, 419-438.

(36) MORET, P. Joseph: *Empeños del valor, y bizarros desempeños, o Sitio de Fuente-Rabia...* traducido al castellano... por don Manuel Silvestre Arlegui. Pamplona, 1763. (Ik. batez ere orrialde hauek: 201, 207, 208 eta 210. Argitalpen hau erabili dugu: 1968. urtean egin zen argitalpen fotografikoa).

plona y maestro de gramática en Sangüesa, el cual traduce en 1763 por *vascuence* lo que Moret ha llamado en 1654 *patria Vasconum lingua* (37) o 'lengua patria de los Vascones'.

-
- (37) MORET, P. Joseph: *De Obsidione Fontirabiae libri tres*. Couronneau, Lyon. 1665. (Hirugarren liburuan eta 403. orrialdean ho sela dio: "In eoque liscrimne acceptum Turrecusano Sarauiam genti suae eius diei praecipuam gloriam ambientem ostendisse, eidem paratam ad decernendum Nauarrorum legionem, noui decoris aemulatione aidam, nec belli rudem prorsus superiorum annorum militia. Neuqe alieno id prorsus monitu Torrecusanus comperit: quippe eorum ordines praeteruectus *patria Vascomun lingua* (nik azpimarratua) immurmurantes inuenit, sciscitantique causam, indignantium quod substitissent, nec vltra progredierentur, murmur esse adstantes *periti linguae* retulere. Eorum quoque genti multum antea tribuerat Turrecusanus, dum traducendas in Ipuscuam legiones prope fines regni...", eta jarraitzen du 507. orrialdean: "Ducebat primos legionis ordines cum *centuria Sangossanorum* magnae spei adolescens *Franfiscus Garrus*, primusque procurrit...").

HIZTEGI SAILA

EUSKAL HIZTEGIAREN GEHIGARRIAK NAFARROAN.
3. ATALA

Iruñea, 1982-I-29

José M.^a Azpiroz

ABIERA. Salida en carreras, competiciones deportivas.

ALLAERA. Llegada en carreras, competiciones deportivas.

ADIURRI. (De ADI y URRÍ: entendimiento escaso.) Carácter, temperamento malo. Tiene siempre sentido peyorativo en Leiza: *hori mutikoa-ren adiurriel*

ALDE BATERA. A destajo: *mendi-lana alde batera egin dugu.*

ALDEKO. De familia, de sangre: *ama aldekoa da mutiko hori.*

AGINDU. Barrenak ez agindu. Sentir repugnancia: *barrenak ez dit agintzen.*

ALBOTO. (De alboroto?) Disgusto, sobresalto: *alboto gaitze hartu zuen.*

AUDERDI. Manera, modo: *eskuak garbi eukitzeko, alderdi ederra loi tar-tean jostatzea.*

ALKOSIN. Hablando de manjares o bebidas, repetición o acción de repetir, venir a la boca el sabor de lo que se ha comido o bebido.

-ANTZ. Según Azkue, sufijo que se agrega a nombres (¿habría querido decir adjetivos?) para denotar los colores no bien definidos. En Leiza se emplea con adjetivos que denotan sabor: *motelantxe, gaziantxa, epe-lantxa, beroantxa, otzantxa.*

ANBULO. Sinón. de Tetelo. Bobo: *hori gizon anbuloa!*

APRENSIO. Temor.

ARRUNTEAN. Sinón. de Arrunt: *oihana arruntean ebaki. Dena garbituz, deusik utzi gabe. A matarrasa.*

ATERIZKI. Sinón. de Aterraldi. Escampada.

AXITU. Lana axitu. Aligerar el trabajo: *gaurko trasnekin lana aunitz axitzen da.*

Axit bizi. Vivir fácilmente, cómodamente: “*lehen baiño axitago bizi da orain jendea*”.

BABES. Leku babesa. Adj. en Leiza: *leku babesean dago gure etxea*. Protegido, resguardado: *leku aize-babesa, leku hotz-babesa*.

BARREN UTS. Estómago vacío: *barren utsian artzen den bermutak ez du onik egitn*.

b) *Barren hutseko gizona:* hombre de espíritu pobre.

BASI-BASI EGIN. Mojarse: *basi-basi egiñik etorri giñen menditik*.

BETTIRI-DANTZA ERAKUTSI. Hacerle pasar las de Cain. También: *Senperrak* erakutsi. Como: *gorriak* erakutsi.

Bittiri-dantza erakutsiko diot. *Senperrak* erakutsiko dazkiot. *Gorriak* erakutsiko dazkiot.

BIZARRA EGIN. Afeitarse. En Leiza y en Lesaca.

DURU. Sentido común: *batere bururik duenak ez luke holakorik egiñen*.

DERRIORREN. (De “de rigor” castellano?). A la fuerza, violentado.

DERROTIAN. Repentinamente: *derrotian hil*.

EDEITU. Sinón. de Uztartu. Uncir: *behia edeitu; behia uztartu*.

EGOKIERA. Ocasión, oportunidad.

EGOKITU. Corresponderle, tocarle: *egokitu zaio*.

EGUERDIARTE. EGUARTE. El tiempo que precede al mediodía. 10, 11 de la mañana.

ERABATEKO. Ininterrumpido: *erabateko oiñazean dago*.

ERABAT. Definitivamente: *erabat etorri omen da Ameriketatik*.

ERABAT. Sin interrupción: *hau eguraldie! Erabat ari du*.

ERDIBITARTEKO. Intermediario.

ERREPEXA. Sinón. de eskaxa: *jale errepexa, eskaxa*. Mal comedor, de poco apetito.

ERRO. Raiz profunda. Zain: raiz superficial. También Axular distingue. **ERRO y ZAIN.** “...ageri da... gelditu zala zenbait erro eta zain”.

ESKUTITU. Belarra eskutitu. Arrancar la hierba a mano: *arto-arteko belarra eskutitu dugu*.

ESMETU. Variante de EMATU?, de ESMARATU?: *eguraldia esmetu*. Sosegarse el temporal, mal tiempo.

ESPANTU. Espaviento: *horik espantuk!*

ESTALI. Ayuda: *banabarrak eta patatak etxen badire, estali haundie da*.

- ESTALIA EMAN. Poner el tejado, cubierto a un edificio.
- EURIKIA. Eguraldi eurikia. *Ez euri, bai euri. Euria bai hari, ez hari.*
- GAZTEAZI. Sinón. de MARDUL. Lozano.
- GERIZTU. Var. de GERIZATU. Esconder, esconderse: *aitatxi zenari jana gerizten genion. Geriztu zaitte.*
- GORTXINGA. Var. de Ortxinga. Rayos intermitentes de sol.
- GOSAILLU. Ambicioso.
- JALKI. Romper a hablar después de un silencio contenido: *azkenean jalki nintzen.*
- IDORRA. Pareta idorra. Pared hecha sin masa, con piedra solamente.
- INAURRI. En abundancia. *Caztaña eta ezkurra iñaurri izanen da aurten lurrean.*
- INURRI. Cosquilleo, hormiguelo.
- IRUTZI. Apelmazar, prensar: *gazta irutzi egin behar da; lehunegoa ateratzen da, zulorik gabe.*
- IXARTU. Var. de ISARRATU. Rozar tierras.
- IZEN-MUTUR. Nombres propios abreviados: *lehenago ba ziren izen ederrak; orain, berriz, izen-mutur batzuek...*
- JABETU. (Con auxiliar intransitivo). Pedir cuenta de algo. Exigir responsabilidades: *aita jabetu zitzaion semeari.*
- KABITU. Var. de GABIKOTU. Majar el lino.
- KARDABA. 1) Ruido, alboroto v. g. de niños jugando. 2) Estado semiinconsciente del enfermo: *nahasia, gauzak ezin berexiz dagoen eriaeren egoera. Kardaba baten dago gaixoa.*
- KORDE. Conocimiento, sentido. *Korderik gabe gelditu da.*
- LAKAR. Suciedad: *mingaiñeko lakarra.*
- LAKATZ. Aspero.
- LANTZAKA: *Zuhaitz liriaña, gaztea, bere gisa etorritekoa.*
- LARRAKA. Sinón. de MAILLA. Montón largo de helecho o hierba.
- LARRAKATU. Hacer montones largos de helecho o hierba: *iratz larraka. Iratza larrakatu.*
- LELATU. Desalar pescado, carne.
- LISKATU. Salir la flor al nabo: *arbia liskatu.*
- MALO-MALO. Sinón. de MARDUL, lozano: *artoak aurten malo-malo daude.* Se dice también: *elur-malo*: copo grande de nieve.

- MARI BANDERA. Mujer ligera, de no muy buena fama. Tiene más sentido peyorativo que *mari-mutil*.
- MEAKA. Encrucijada de muchos caminos. Todavía hay personas en Leiza que emplean la palabra MEAKA con ese significado. Es muy conocida en la zona del Bidasoa como topónimo. Conozco un lugar llamado MEAKA donde confluyen varios caminos.
- MENDE. 1) Duración: *orain egiten diren etxeek ez dute menderik*. 2) Vida: *gizonaren mendea laburra da*.
- MINTZURU. Piar, voz, conversación (sic.) de los pájaros: *agitz polita da egazkien mintzurua goizian goizik pasatzen hasten dielarik*.
- MIRGIN. De poco apetito: *jale mirgiña*.
- MIZKI. Querencia, inclinación.
- MODU. (Español modo). Medios: *modurik ez izan*. No tener medios para algo.
- MOLTZOKATU. Var. de MOLTSOTU, MOLTZATU. Amontonar.
- MORTALA. Muy, completamente, totalmente: *gizon ona mortala*.
- MUGIDA. Movimiento, de coches, gentes.
- MURRIKA. Var. de MURRUSKA. Ronquido.
- NASMENDU. Enredo, mescolanza.
- NOLABATEKO. De poco fuste, poco arranque: *etxean bi bakarrik gara, eta biak nolabatekoak*.
- NANO. Muy pequeño.
- OIHADRAKA. (De oihu y dehadarka?): *oihadraka izugarriak aditu ditugu bart*.
- OIHER. Vitalidad, fuerza vital no precisamente física: *xahartu naiz, eta oiherrak akitzen ari zaizkit*.
- OHILDU. Destrozar: *ankapean ohildu*.
- OKASIO. Riña, reyerta.
- OLATU. Entumecerse un miembro. Var. de ALATU.
- ONBORTU. Volverse torpón: *gizon hori arrata onbortu da*.
- ORAINTXE BATEKO: *ez da oraintxe batekoa*. No es de ahora. Es de hace mucho tiempo: *zuk diozun hori ez da oraintxe batekoa*. eso que dices tú sucedió hace mucho tiempo.
- ORDU-LAN. Trabajo por horas: *ordu-lanerako jendea bildu egiten zen orain 40 urte*.

- ORBEZTU. (Lesaca). ORBERATU. (Leiza). Entumecerse, reblandecer las pezuñas v. g. a las vacas, de forma que no pueden caminar porque les duele. De OR y BEZTU; OR y BERATU. Or, pie; Beztu, ennegrecer. Beratu, reblandecer. ORPO en Leiza, talón. Conocido: *ortuts, ortutsik*: descalzo.
- ORKOBI. Cobijo, lugar abrigado. Conf. Azk. ORKI, ORKITC, aguardar, esperar.
- ORATU. Manchar.
- OTZA AUTSI. Lit. romper el frío. Entrar en calor, templar. Se dice tanto del tiempo atmosférico como del cuerpo.
- OTAXKA. (Ote y aska). Gamella donde se deshace la argoma para comida del ganado.
- OZKITU. Aterido de frío: *ozkituak etorri ginen menditik*.
- OZPRIIA. Sinón. de MADARIKATUA!, *inpernukoal, deabrua! Urde ozpriia! Ozpirin, Ozpriñ* en Azk. rayo.
- PARTXELDU: *ardi partxeldua. Ardia partxeldu*. Se dice de la oveja que queda fuera del rebaño, se retrasa, porque está enferma y no puede seguir al rebaño. Var. de PARZELATU. "... bereziak eta parzelatuak egonen dira". GERO Axular.
- PALDA. Sinón. de ZERRENDIA, MAZELA, Franja, tira.
- PASADA. (De pasada castell.?) Sinón. de KASKAILTZA. Exterminio, castigo: *gerrak pasada gaitza eman zion jendeari*.
- PASAGARRI. Dinero suficiente para vivir sin trabajar.
- PASEO, PASMATU. Infección.
- PERDES. Tambaleo.
- PERDESKA. Tambaleando. Azr. PERDIZKA.
- PIRPILDU. Var. de pipildu? Desplumar.
- PITXIKULU. Var. de PITXI, alhaja, perla.
- PIZAR. Nada: *etzaio pizarrik axola*.
- PODORIOZ. A base de ... A fuerza de ... *indarraren podorioz egiten du. Esanaren podorioz joaten da eskolara*.
- PODORETU. Multiplicarse: *eguraldi honekin barek ederki podoratuko dire*.
- PORKA. Racimo de uvas.
- PREMITU. Encontrarse en necesidad: *gizonak, premitzen denean, edozein gauza egiten du*.
- PREZESKI. Precisamente.

- PROPORIZIO. Oportunidad: *proporzio hoberik ez du izanen sekulen.*
- SAROI. Entero. (Animal entero.): *Zaldi saroia.*
- SAROBE. Salud, fortaleza. Var. (?) de sasoi.
- SASOI. Salud, fortaleza: *hori sasoi!*
- XAGU. Columpio.
- SEHASKA: *bertze sehaskakoa.* Lit. de otra cama. Se dice de la persona que por nacimiento es ajena a la casa donde vive. La dueña, dueño joven de una casa que por nacimiento es de otra.
- SIKIRA. (Castell. siquiera.): *sikira zu bēnik etorriko baziñe, ez litzake deus.*
- SOIL. Sólo: *etxe soila:* casa sin balcones, con alguna ventana: *emakume soila:* mujer medio desnuda.
- SOLASBERRITU. Cambiar impresiones: *komeni da baseritik karrikara jestea, solasberritzera bertzerik ez bada ere.*
- SORGIN: *sorgin-pikua:* higo silvestre.
- SOR. Sufrido: *mimendako sorra zen gaixoa.*
- SORTU. Calmar, calmarse el dolor: *oñazia sortu.*
- SOTIL. XOTIL. Cariñoso: *gizon xotila.*
- SUERTATU. Acaecer, resultar. Equivale al popular en castellano SURTIR. (Vid. Vocabulario Navarro. J. M. Iribarren). *Tolosan suertatu nintzen egun hartan.*
- SUMARIO. Rastro, pista.
- UDATU. Veranear.
- URTATU. Var. de URTAZTU. Dejar corromper el lino en agua para separar la arista.
- XADRATU. Var. de XEDERRATU. Rozar tierras.
- XAMURTU: *beroa, otza, eguraldia.* Ablandar el frío, calor, tiempo.
- XARBUXU. De mucho pelo: *txakur xarbuxua.*
- TERREATU. Amilantar, acobardar. Azk. Ejecutar, dar muerte.
- TIRABIDE. A tiro, al alcance de una arma de fuego: *erbia tirabidera atera.*
- TORTIKATU. Envenenar.
- TREGAZI. (De Trenka, indet. de *trenkatu*, cortar, y *hazi*, instrumento cortante.) Especie de cuchilla, hacha para desmenuzar la argoma.
- TROPESI. Hidropesia? *urezko tropesia, airezko tropesia eta materizko tropesia.* Orrencia en la regata del Bidasoa.

TXIRALI. Cocer: *opilla txirali*.

TXONDORTU. Endurecerse: *gizon hori dena txondorturik gelditu da*.

TXURITXA. Señal que se hace en los árboles quitándoles parte de la corteza: "Pedro José Echarte vendió un castaño en el paraje de Zarrola, que está rodeado de churichas".

UHERTU. Nublarse: *goizetik uhartzen hasi du gaur*.

UKIRA. Contacto: *ukira txiki bat aski da askotan gizona garbitzeko*.

UKATU. No desarrollarse, no madurarse: *tomatiak euriaki ukatzen du*.

URBERRI. Se dice de las aguas después de un temporal de lluvias.

URTEZARTU. Que tiene un año: *urdai-azpiko urte-zartue, urdai-azpikorik hobéna. Banabar urte-zartue, txarra jateko*.

URRI. Nada, ni pizca: *errespetoaren urririk ez du horrek*.

UZKOL. Sinón. de LOTSATI. Timido.

XERALDU. Aligerarse de peso, carnes. Azk. XERAILLA, delgadocho.

XILINDRATU: *bildotsa xilindratua*: cordero al chilindrón.

XIROLDU: *begiak xiroldu*. Perder la expresión de los ojos por sueño, cansancio. *Begi xirolduak dauzka*.

IERTU. Apretar, ajustar. (Tendrá alguna relación con YERTO castellano?).

ZAROTI. Comida fría. Companaje.

ZARBUZTU. (De *za(h)ar*, viejo y *(h)ustu*, vacío?). *Zuhaitz zarbuztua*. Árbol que no ha crecido por el clima duro y frío: *burgos aldeko mendietan arbol zarbuztua besterik ez da ikusten*. Tendrá alguna relación con ARBUSTO castellano?

ZARPA. Andrajo: *zarpak hartu*, hacerse andrajoso, volverse andrajoso.

ZARRAKAMALDA. Var. de ZARRAMAKALDA. Machete.

ZAURIA SORAIOTU. Insensibilizarse una herida.

ZEZEN JOKO. Corrida de toros. *Antzara-joko*.

ZEZEN-LASTERRA. Encierro de toros.

ZERRENDA. Sinón. de ZARPAILLA, *axolkabea*. Descuidado.

ZINBURRINETE. Var. de ZINBURRIN. Instrumento músico. Canción recogida en Leiza: *zinburriñete, zinburriñete/ iru iltze-buru nituen dote/. Beste zerbait gehiago ba nuen ere/; burruntzali zar-zar bat/ kiderrik gabe*.

ZINTZAMARI. Sanguijuela: *ardo zaharra eta baba zaharra, xaharren erremedioa; zintzamaría berriz gazteena*.

ZINTZAR: *euri zintzarra*. Sinón. de XIRIMIRI.

ZIPIT. Nada: *ez zaio zipitik importa*.

ZIRUILLDU. Ponerse medio borracho, bebidillo.

ZIRRINZILLU. Saetera.

ZIT. Terquedad. Var. de ZITALKERI.

ZORROZTU: *turmoia zorroztu*. Intensificarse, agudizarse la tormenta: *turmoia zorrozten ari du*.

ZUNBIL. Rodillo de madera para deshacerse los terrones del campo.

ZUPITU. Maltratar: *joka zupitu zuen*.

ZURI-ZURI: *zuri-zuri bizi*. *Alferrean, lanik egin gabe bizi*: vivir sin trabajar.

KULTUR HITZEN ORTHOGRAPHIA EUSKARAZ

Donostia, 1982-III-26

Federico Krutwig

Hizkuntza guztietan ba dagotza typo askotako hitzak. Hitz hauk batzuetan bilt genitzake hizkera paraleloak diren bildumetan. Frantsesez hunelako hizkerak “niveaux de langage” hitzaren bidez izeneztatzen dira.

Hunelako hizkuntza-niveletan importanteenak:

Mintzatu hizkuntza basikoa dira eta.

Kultur hizkuntza

Bi hizkera hauien artean dagoen differentzia importantena puntu hauietan datza:

Mintzatu hizkuntza

Hizkera *akustikoa* da. Huntan importanteena mintzatu forma da, hitz egiten usatzen dena.

Hizkera hunen tradizioea, ia bethi ere akustikoa da.

Hizkera hau berez, hizkuntza osoaren basia da.

Kultur hizkera

Hizkuntza *optikoa* da. Iratzi hizkuntza. Baldin-eta mintzatu hizkuntza belhaunez-belhaun hizkuntza mintzatzearen bidez konservatzen ba da, iratzi hizkuntza, batez ere liburuen bidez konservatzen da.

Iratzi hizkuntzaren hitzak —kultur hitzak— ia bethi kultur-kyklo batetan basian dagoen kultur hizkuntza batetik dathortza, hunen arauera Europan hitz hauien ethorkia helleno-latino da, Indian sanskritikoa, Asi Ekhialdekoan Txinarazkoa, eta herri islâmikoetan araboa.

Hitz hauk bethi hizkuntza jakintzalarien, jakintsuen eta literaturgileen ekhinzaren bidez sartu dira. Frantsesez hitz hauk “mots d’origine savante” direla erraiten da.

Hitz haien orthographia, halakotz, hizkuntza guztietan, eredu differenteetan erabilten dira. Bainan bethi orthographi hau berdina da kultur-hizkuntzetan.

Mintzatu hizkuntzaren orthographia

Mintzatu hizkuntzan gehienetan prinzipio basikoa PHÔNETISMOA da. Hitzak ahoskatzen diren bezala iratzi behar liratezke.

Kultur hitzen orthographia

Hemen prinzipio basikoa osotoro differenta da:

Hemen hitzak nola iratzen bait dira, halatan ahoskatu behar dira. Eta irazkera bethi kultur-enborra den hizkuntza klasikoaren orthographiaz egiten da.

Berhain, herri batzuetan, batez ere kulturaren nivela beheititu denetan, nolobait mintzatu hizkuntzaren prinzipioa kultur hitzetan ere sartzen dateke

Gaur egunean Europako kulturaren enborra hizkuntza zahar hauk dira:

(1a.) Graikoa eta (2a.) latina. (Latinez ere graiko hitzen beren ahoskuztea konservatzen zuten.)

Geroz hauekin batera anglara ta alemanara orain MUNDU GUZTIAN dagozen hizkuntza universalak dira. *Hizkuntza universal* denominazioea emaiten zaio hizkuntza bati, zeintan kultur materia guztiei buruz bibliographi osoa bait dago.

Bi hizkuntza hauietan ia mundu osoa publikatzen den literatur osoaren erdia argitaratzen da. Bi hizkuntza hauek eta frantsesarak' huntaz gainera kultur hitzen orthographi klasikoa konservatzen dute. Hunen araura, munduan publikatzen den literatura (batez ere jakintza-literatureren) % 60 kultur hitzek latinez zedukaten aspektu optikoaz publikatzen da.

Beraz hemen praktikan *erraztasuna* hitz hauek anglaraz, alemanaraz eta frantsez duten orthographiaz iraztea da, zeren-eta bizi modernoan persona batek bere kultura hedata nahi dezanean, nahi-eta-ez hizkuntza hauietan irazitza dagozen textuetarat joan behar bait du, eta orduan *erraztasuna* bethi izanen da, hitzak jadanik kultur textu hauietan ageriko diren formez ezaguztea.

Euskalzaindiak jadanik (neure aburuz 1950/n gora behera) euskaraz kultur hitzak HIZKUNTZA ORIGINALETAN zedukaten orthographiaz ere' iratzi behar zirela arthamendatzeko erabakia onhartu zuen.

Neure aburuz arthamendu hori berriro egin behar lizatekela.

Beraz *euskaraz kultur hitzak' beren forma graiko-latinaz iratzi behar liratezke, eta ez españaraz duten forman.*

Motivoak

1. Mundu guztiko hizkuntza (iratzi hizkuntza) importanteetan hunela egiten bait da.

Hizkuntza hauietan gaur eguneko hizkuntza universalak bait dagotza, beren kultura hedatu behar duten professionelleek nahi eta ez, lehenago edo geroago, hizkuntza hauietan iratziko textuak irakurri egin behar bait dituzte, ama-hizkuntza ere kultur hitzak hola iratzi behar liritezke, nola geroago beharkizunetan irakurriko dituzten.

2. Nola euskaraz' askotan gaztelaniatik ERDARAKADARIK gehiegi sartzen bait dira, halatan ongi da, hunelako invasione pseudo-kulturalari aitzizko orthographizko murrutik ezartzea.
3. Gaztelania, mundu osoan, eta batez ere gaur eguneko kulturaren eta teknikean ez da egiazko kultur hizkuntza bat, hizkuntza marginal bat baizik, beraz euskara' gaztelaniaren kultur-menpean ezarten ba da, ez soilik eta bakharririk euskarari baizik-eta batez ere euskaldunei' kalte eginen generauke.
4. Euskaldunek gaur egunean pairatzen duten kultur-imperialismuaren aitzizko salbatzekotz. Batez ere orain arte pairatzen duten kolonialismuaren eta kolonizatuen konplexutik liberatzekotz.
5. Euskararen personalitatea zentzu huntan ere ongi finkatzekotz.
6. Finkatzapen hunen bidez euskaldunen kultur-interessea Europako kultur fokuerata zuzentzekotz.

* * *

Beraz zentzu huntan euskaraz $\begin{matrix} v \\ y \end{matrix}$ (vokal bezala ü ahoskatzea), $\begin{matrix} \vartheta \\ th \end{matrix}$, $\begin{matrix} \varphi \\ ph \end{matrix}$, $\begin{matrix} \kappa \\ kh \end{matrix}$, eta $\begin{matrix} x \\ \xi \end{matrix}$ (hau *kz* ahoskatzeaz) konservatu behar liritezke.

Geroz graiko hitzetan: $\begin{matrix} \alpha i \\ ai \end{matrix}$, $\begin{matrix} oi \\ oi \end{matrix}$ eta $\begin{matrix} \epsilon i \\ ei \end{matrix}$ diphthongoak konservatu.

Gehienetan -s bezala agerten den nominativu bukaera khentzea, salvu-eta (izen neutroetan, non -s hori organikoa bait da).

Deklinaioze konsonantikoetan, akkusativuaren forma edo genitivuaren forma; nominativuaren oreduaz erabiltea. Hau' huntara ere bertze hizkuntzetan egiten da:

mêninga (ez mêninx) españolez: meninge
salpinga (eta ez salpinx)
Pyramide (eta ez Pyramís)

Nahiz eta nominativuaren -s khendu behar denarren, hitz neutroetan ez da hunelakorik egin behar. Adibidez: telos (gen. telus) eta batez ere izen propioetan: *Aristotelês* eta ez *Aristotelê* (gen. Aristotelus) *Periklês* (eta ez: *Periklê*).

Hunela ere, mirikuntzan (bukaera konvenzional bezala erabilten den *itis* delakoz egin behar lizateke: euskaraz ere mênigitis (-s konsonanteaz).

BERRIAK

EUSKALTZAINDIKO EGINKIZUNEN SAILKAPENA

Iruñea, 1982-I-29

J. M. Satrustegi

Euskaltzaindia kanpoztan eta barnean antzaldatzen ari da azken urte hauetan eta ez, noski, norbaiten gogapen hutsez, biziak sortutako dinamikak eraginik baizik. Euskal Herria bera da, azken finean, aldatzen doana bere historiaren soka muturretik.

Hori dela eta, gure ordezkariak eta langileen arazoa birraipatzera natorkizue gaur. Birraipatzera diot, bai, Deban Dialektologi Jardunetako bileran eman bait nion kezka honetaz kontu Euskaltzaindiari, 1981.eko apirilaren 24ean. Txosten hura ez zen jaso, ez eztabaidatu. Bitartean, gauzak zeudenean daude eta ez dakigu, askotan, egiten duguna egin behar genukeen edo etxean gelditzea ez ote litzaken hobe. Euskaltzainburuarekin ibil berri dut gai hau Jardunaldietako liburua Madrilan aurkeztera elkarrekin joan ginelarik.

Ez nator neure asmoren bat bultzatzera, Euskaltzaindiak erabaki zehatz bat lehen-bait-lehen hartu beharra duela oroitaraztera baizik. Borondaterik hobereenez lana egin eta, ustez bere erantzunkizunari jator erantzun diolakoan, ausart, azpijale, nahasle eta besteren alorren irauale dela entzutea ez da inorentzat atsegin.

Arazoak jabetzen joateko lau puntu azpimarratuko ditut: a) *Arduraduna*. b) *Orain arteko egoera*. c) *Igaz emandako urratsak*, eta d) *Etorkizunerako plangintza*.

a) *Arduraduna*

Euskaltzaindiko langileen arazo laboralak idazkariaren eginkizunetatik bereiztea eskatu zaigu noizbait. Ekintza akademikoen koordinakundea eta laboral arlokoak, alegia, arduradun biren eskuz eramatea.

Idazkaritzako karguan urte biko epea bete nuen egunean kezkatxo baten mikaztasuna nuen, aidean gelditutako gauzen artean itzulika: gure langileen arazoa. Gai labaina, arriskugarria baina, egokitu beharra.

Euskaltzaindiak arazo hauetan eskarmentu gutxi duela esango nuke nik. Denok dakigu zoin egoera murritzean ibili garen duela denbora gutxi arte eta, horrexegatik behar bada, borondate onez baina, batzutan borondatekeria hutsez jokatzeko genuelako susmoa hartzen nion.

Urte biko ardura neutako jakingarria izan zen, beste alde; zenbait puntu lotzen joan naiz egunoroko aginkizun nagusiez beste alde. Zer edo zer aipatu dudalarik berehala ahoa itxierazi zaidala ere esan beharko nuen, baina tira.

Gure bulegoetako lan arrunten banaketa neurritsu bihurtu eta lanorduei baliamen egokia ateraztea da jestioaren helburua. Arazo berria du Euskaltzaindiak jestioarena. Duela urte gutxi arte hiru langile zituen, eta hamalau-hamabost bat badu orain. Ongi dakigunez, sarbide murrizak genituen eta ezin gauza haundirik egin.

Lehenbiziko arategietan ez dut langileriaren aipamen berezirik aurkitu. Jestio arazoa, hitz honekin hain zuzen ere, 1974.eko Barne Erregeletan agertzen da lehenengo aldiz, diru etorkina sortu eta aurrera eramateko ekonomi eragile bat izendatzean (14.art.).

1978.eko hauteskundeetan gure ekonomia indartzen hasia genuen, eta notarioaz egindako arduradunen agiriak jestioa aipu du. Honela dio:

“Para el secretario. Se consignará expresamente queda autorizado para la realización y suscripción de toda clase de actos y contratos que exija la administración y gestión de los intereses de la Institución representada.”

Ordezkaritza guzien koordinakundea idazkariaren gain zegoela adierazi zitzaidan hitzez orduan, eta agindu zehatz horren arabera jokatu dut geroztik.

Deban esan nuenez, kargu horretaz zerbait azaldu beharrean aurkitzen naiz. Langileen arazoa gogotik leporatu nuela uste badu norbaitek, poto egin du; ez naiz hain zozo eta ergela. Pertsona arteko tirabirak ez dira beti erraz konpontzekoak, nahigabe ugari sortu ohi dute eta atsegin gutxi. Idazkari karguak zer eginik aski badu beste alde. Ez nabil, beraz, erantzunkizun horren bila edo uzteko minez. Garbi geldi bedi.

Kargudunon eginkizunak zehatz-mehatz mugatzea izango da Euskaltzaindiari eskatzen zaion lehenbiziko lana, eta norberaren erantzunkizuna betetzen ahalegin-zea.

Edozein erabaki hartu aurretik, hala ere, bide bat baino gehiago badela jakin behar genuke, bakoitzaren alderdi onak eta txarrak aztertuz. Honako hauek ikusten ditut nik:

1. Zuzendaritzako kargudun baten gain uztea, orain arte bezala: *Euskaltzainburua* izan daiteke, *buruordea*, *idazkaria* ala *diruzaina*.
2. Kargurik ez duen beste euskaltzain oso bat horretarako zuzenean izendatzea. Euskaltzainburu goan sartuko nuke koordinakuntza bizkorra eta emankorra izango bada. Ahal bada, bere ogibidea Euskaltzainditik ez badu, hobe.
3. Dagokion soldataz jerente bat aurki daiteke. “Bai Euskarari” kanpaina eratu zutenek, hain zuzen, hirugarren bide hau proposatu ziguten. Euskaltzain izan beharrik ez luke.

Bide bat ala bestea aukeratzeko eskubide osoa du Euskaltzaindiak. Ezin duena, bizkarra jaso eta isilik egotea da. Esku artean daramatzen lanekin eta gerora begira letorzkiokenekin oinarritzko arazoa da.

Kargu bakarra. Langileen laboral istiluak beroien akademi eginkizunen koordinakuntzatik bereiztea eskatu zitzaigun. Harrigarria.

Orain arte, noski, banaturik egon dira. Idazkari naizen denborako esperientzia aipa dezadan. Bulego lanen eta langile bakoitzaren egoera ezagutu nahi nuelarik,

laboral mailako soka muturren aitzakia agertzen zitzaidan beti gauza garbirik ez ikusteko: ordu kontura omen zelako batzuen lana, edo langile guzietan omen zitzutzelako ordu berak sartzen. Kategoria arazoa eta langileurte kopurua ere ba zegoen artean.

Gezurra badirudi ere, idazkari naizen denboran egindako izendapenen susmorik ez dut izan euskaltzain guziei proposamena egin arte. Kasu batean, gure langile berria lanean ari zen nik horren berri jakin orduko.

Laboral arazoak, ikusten duzuen bezala, ez dira denbora honetan idazkariaren eskuetik joan. Eta lan-beharren koordinakundea ere ez. Euskaltzaindikoa langile arazoa bere gisa ibili da orain arte eta hutsuneak, beste alde, beroien erruz ez baino gure plangintza-ezaz izan direla esango nuke nik. Erantzunkizunaren finkapena eskatzen dut, besterik ez.

Iritzi pertsonala eskatuko balitzait, zera esango nuke, langilego arazo guzietan arduradun bakarraren esku egon behar luketela, diru kontuak diruzain baten esku eta bibliotekako gora beherak liburutzaile bakarraren gain dauden bezala. Zer dela eta, langileen eskubideak alde batetik eta erantzunkizunak bestetik zaintzeko eskaria? Nere galdera.

b) *Lehenengo egoera*

Zulo asko bete du hogeita bost urtez Euskaltzaindiak Euskal Herriko kultura alorrean. Euskarari buruz ezer gutxi egin zaitekeen urteetan ekintza txalagarriak sortu eta bultzatu ditu, gerorako azpiegitura finkatuz. Hori dela eta, eraman ezinezko zama leporatu zitzaion. Orain urtebete, nere bigarren idazkari izendapena hartzean, hau zen Loiolan ikusitako batzordeen kopurua:

Iker saila. 1) Aditzarena. 2) Gramatikarena. 3) Dialektologia. 4) Lekukoena. 5) Herri-administratibo hiztegia. 6) Pertsona Izendegia. 7) Herri izendegia. 8) Herri jakintza.

Jagon saila. 9) Alfabetatze Euskalduntze. 10) Irakaslegokoa. 11) Oinarrizko euskara. 12) Bertsolaritza. 13) Elebitasuneko. 14) Euskalarien idazkaritza. 15) Itzultzaile eskola. 16) Literatura, Loiolan sortutako batzorde berria.

Egituren batzordeak. 17) Euskaltzainburugoa. 18) Diruzaintza. 19) Azkue Biblioteka. 20) Euskera eta argitalpenak.

Hogei batzorde, beraz. Kopuru beldurgarria, ez bait gara inongo ministeritza. Hizkuntzaren Akademia batek beharrezkoenik duen Hiztegi batzorderik ez, beste alde.

Gure langileen dantzarekin zerrikusirik badu egoera honek. Euskaltzaindiaren bulegoetako sei langileren izenak, batzordekideen zerrenda horietan hamasei aldiz agertzen dira. Horrek esan nahi du beste horrenbeste batzorde bileretarako deiak jasoko zitzutela eta bulegotako jarlekuak hutsik utzi.

Nik ez dakit gaurko Euskaltzaindiaren bulego lanerako hainbeste langile behar dugun ala ez. Erribera kaleko Azkue Bibliotekan, esate baterako, lan asko dago eguneroko idazkari eta liburu berrien fitxak egiten. Liburu guzietan banan-banako fitxak ere noizbait egin beharko dira. *Beste langile baten beharra* agertu zuen Arana presua, eta arrazoi osoz nik uste. Eta bizkitartean, argitalpen berezien ardura, Iparragi-

rreren mendeurrenako arazoak eta Euskalarien harremanak leporatu dizkiogu J. A. Aranari. Berak aitortu zigunez, Azkue Bibliotekaren eginkizunetara bakarrik bere erantzunkizuna mugatuz, bigarren laguntzalerik gabe egin omen lezake Erribera etxe-ko liburuen lana.

Irakasle batzordea ere hor genuen. Orain arte, batz besteko zama kontuan izanik, Irakasle Gaitasun titulu bakoitza bost orduko lana gosta zaio Euskaltzaindiari. Milaka eta milaka ordu hamar urte hauetan. Eta denbora berean, ekonomi eragiletzat hartu genuen langileak hamar ordutatik zortzi irakaslego batzordean sartu omen ditu, eta bi besterik ez bere ekintza berezian.

Pertsona izendegiak ere lan haundia eman du zenbait urtez, Juzgadoetatik eskatzen zizkiguten agiriak egin behar bai genituen.

Honelakoa zen, duela urtebete gure langileen egoera.

c) Igaz emandako urratsak

Plangintza egiterakoan, Euskaltzaindiak zuzenean bereak ez dituen eginkizunak mugatu eta baztertu beharra garbi ikusten zen. Bere lan horien sailkatzea eta erantzunkizunen banaketa etorriko da gero. Hori da nik Debako azalpenean adierazi nuen eta, hori, han ziren guzien onespenez —edo isilunez behintzat— ontzat emandako helburua. Horri erantzuten ahalegindu naiz urte guzian.

Sare nahasian harietan eroriak ginel a bagenekien, eta nahigaberen bat edo beste zekarkigukeela ere bai. Baina, plangintza hoberenak gutxi balio du ez betetzekotan.

Hasiera ona izan zuen Loiolako jardunena. Hiru batzorde desagertu ziren: Pertsona izendegiarena, Herri administralgo Hiztegiarena, eta Elebitasunekoa. Herri Jakintzakoena, beste alde, asmo hutsean gelditurik dago, eta Herri Izendegiarena astiro zebilela esan zen.

Alfabetatze Euskalduntze batzordea egoera berezian zegoela bere ofizialtasuna lortu bitartean, esan zitzaigun Loiolan, eta beharrezkoa omen zela batzordearen jarraipena. Ekainean, Euskaltzainburugoaren aginduz AEK-koekin Gasteizen San Martinek eta biok izan genuen elkarrizketa batean, Euskaltzaindiaren eskubide guziak eman genizkien inolako loturarik gabe beren alde lanean jarraitzeko. Ontzat hartu zuten gure eskaintza.

Gure asmoen berri emateko Langile guziekin bilera egin genuen martxoaren 20an, Urdiainen, eta denen iritzia jaso genituen. Gure zenbait langilek ez zuten elkar ezagutzen ere, telefono harreman hutsak bait zituzten ordurarte. Elkarren arteko adiskidantza eta giro ona sortzeaz beste alde, Euskaltzindiko egituren berri eman zitzairen, hala nola urteko asmoen ikuspegia.

Irakaslego batzordea gertatu da, ongi dakizuenez, korapilatsuena. Dena den, Hondarribiko adierazpenaren ondorean errazago izango zaio Euskaltzaindiari bere eginbeharrak bideratzen joatea.

Eraketa berriaren ondorez, Arbieta kaleko langile bat izendatu dugu Euskaltzindiko liburu gordailuaren arduradun. Han gainezka dagoen liburu metak eta eskariek daramaten abiadak eskatzen zuen lanpostu berria. Milioi askoren arazoa da eta bertako salerosketen mozkinak ordainduko du arduradunaren lansaria.

1981.urtea oso garrantzitsutzat jotzen dut, lortutako ondore onengatik baino gehiago Euskaltzaindiak hartu duen bide berriagatik. Oinarriak finkatu eta helburuak argitzea izan da hainbeste iskanbila sortu duen urte honetako emaitza aberatsa. Hiztegi espezialduen eztabaida zaratatsuak berak argi burrusta ernagarria bota du Hondarribiko adierazpenarekin.

Plangintzaren lehen helburua zuzenean Euskaltzaindiarenak ez ziren ekintzak baztertzea, ia osorik bete dela esan dezakegu. Bulego lanak ere aztertzen ari gara eta bigarren arlo honetan urratsen bat emana da.

Hau da 1981.urteak berez eman duena.

d) *Aurtengo plangintza*

Hasitako bide honetan etenik gabe aurrera joatea izango da aurtengo lanen ardatza. Bideratu gabe, edo erdibide batean geratutakoan artean hor dugu Itzultzaileen eskola, eten ezinik Euskaltzaindiaren zilborrari nolabait lotua. Ustez garbi zegoen ikastaro honetarako egingo zen legeztapenaren eskaintza ofiziala, eta beti geratu ohi zaigunez, luzapena izan du. Geroko gero, hau ere. Euskaltzaindiak ikusiko du zer erantzun eman bere aldetik.

Azkue Bibliotekan liburu guzien banan banako sailkapena egiten hasi beharra dago. Tokiz aldatzerako egina balitz hobe, garraioek duten arriskuagatik. Nola nahi ere, Arbietoko bulegoetako lanetan nabari egongo da azterketa eta tituluen zama arintzea, besteak beste, eta horren ondore logikoa ordu hariak beste nunbait sartzen hasia izango da. Lehentasunik zerbaiti ematekotan, une honetan Azkue Bibliotekari eman niezaioke nik.

Orain arte batzorde guziek egindakoen idazgordailu edo artxibo orokorrak ere gerorako garrantzi haundia du, eta atzerapenik gabe ongi egiten joateko modua ikus behar genuke. Bulego lan hauek teknikoki erameteko lehen-bait-lehen gure langileen-tzat ikastaro berezi bat antolatu beharra izango dugu. Ez da oraiko asmoa eta beti gerorako uzten goaz.

Gaur-gaurko eginkizun beharrezkoenen sailkapena Euskaltzaindiarentzat honela ikusten dut nik:

Iker Saila:

- Dialektologia bilketa.
- Gramatika azterketak.
- Hiztegi gintza.
- Lekukoen argitalpenak.
- IKER II, Lafitteren omenaldiko liburua.

Jagon Saila:

- Literatura.
- Bertsolarien txapelketak.

- JAGON I, Iparragirrereren omenaldiko liburua.
- Oinarrizko euskararen jarraipena.

Egitaraukoak:

- Etxe berriaren lorpena.
- Ekonomi plangintza zehatza.

Plangintza zehatz aurrera eramateko, poliki poliki baina utzikeriarik gabe, kargudunen, eta langileen eginkizunak behingoz finkatu beharrak ikusten ditut. Batzorde lanak, beste alde, beren bide eta prozedura berezia badute. Ahal delarik, ez genituzke batzorde lanak bulegoetakoekin gehiegi nahasi behar.

Eta lehenengo lerrotara itzuliz, nor arduratuko da hemendik aurrera langile arazoarekin? Eta bigarren galdera, berezi behar al-dira laboral/akademiko arazoak?

Erabaki beza zalantzarik gabe lana egiteko eran Euskaltzaindiak.

DIALEKTOLOGIAZKO JARDUNALDIAK DONAIXTI-IBARREN

Donostia, 1982-V-28

J. A. Letamendia

Nafarroa Behereko Donaixti-Ibarre herri polit eta ñimiñoan Lopez-en omenaldiaren kariaz Euskaltzaindiak antolaturik Dialektologiako jardunaldiak izan dira 1982.eko Apirilaren 16 eta 17an. Bertara bildu dira Dialektologiako Batzordeak deituriko lankideak eta euskaltzain buruez gainera hainbat euskaltzain oso ere lanerako gogotsu. Hogeita bost lagun bataz beste.

Gehienak eguerdirako han zirela arratsaldeko hiruretan ekin zaio lanari. Lehen hitzaldia Allières jaunaren izenean iragarrita bazen ere honen ezin etorriaz J. Haritschelharrek ireki du bilkura arbelean idatzirik zeuden hitzak errepikatuz: “hunki jin!”.

Laburki, duela zenbait urte Iparraldean egin zituzten dialektologiako entseguen berri eman du Haritschelhar jaunak. Lehenik, hautatu zituzten herrien zerrenda ezagutarazi du, berrogeita hamaika oro har, eta, ondoren, erabili zituzten inkesta mota biak: bata, hiztegiak batipat, gutunez egina —gero Lafitte jaunak zehazkiago azalduko diguna—, eta bestea, morfologiak, magnetofonoz bildua. Morfologiako galdekizunean 23 fitxa ziren eta 350 galdera frantsesez eginak deklinabidea, zenbakiak, erakusleak, adberbioak eta izenordainak bereziki jasotzeko taxutuak. Bilketan Monique Capdevielle eta Rogert Idiart ibili ziren herriz herri Iparraldeko probintzietan. Laguntzarik ezaz bide erdian gelditu zen asmoa helmugara iritsi ezinik. Haritschelhar jaunak dioenez hortxe daukagu lanaren hastapen bat eta berorren berri eman nahi izan digu sarrerako mintzaldi honetan. Beronen ustez atlas batean 2.500 galdera behar dira eta bilketa lana hiru modutara egiten da: zeharkako inkesta itzulpenaren bidez, galdera zuzenak eta, azkenik, hizketaldi librean grabaketak. Etno eta tekno testuak ere erabil daitezkeela dio harri batez bi txori hiltzen direlarik.

Ondoren Lafitte jaunak berak egin zuen lanaren berri eman du. Alemanian eta Suizan gaiak sailka eta eremuka galdegiteko era ikusirik horrelako zerbaite moldatu nahi izan zuen gutunez biltzeko, ahaidegoa, abereak, arbolak eta abarri buruzko galdekizunak prestatuak. 23 herritako erantzunak jaso zituen izkribuz. Hala ere, ondorioak ikusirik ez deritza aprobelegia halako bilketa sistemari: herri bakoitzean lagun bakar bat zuelarik, batzuetan lanpetuak zirela, bestetan hiztegietan begiratuta erantzuten zutela, zenbaitetan bertakoak gabe etorkinak zirelako edota ortografia bera nor bere gisara erabiltzen zutelako, bilduriko erantzunak ez ziren espero zuen bezain fidagarriak.

Haritschelhar eta Lafitte jaunen azalpenak amaiturik elkarrizketa izan da lagun askok parte hartzen dutelarik. Besteak beste, erdaraz ala euskaraz galdegiteko arrazoiak aipatu dira, nolako lekukoa behar den, ikasia ala ez-ikasia, edota zer den hemen ikasia izatea, adina, e.a.

* * *

Seiak laurden gutxitan Koldo Mitxelenaren txostena, *Euskalkien ageriko aurpegi*, irakurri du A. Villasantek. Lanaren hasieran Euskal Atlasak eta dialektologiak dakarten atzerapenaren arrazoi nagusiak gogora erazi dizkigu: goimailako ikerzentzurik eta unibertsitaterik eza batetik, eta hizkuntzaren egoera bakartia, ahaiderik gabea, besteren saioez baliatu ahal izateko bestetik. Euskal hitzkuntz-atlasa hasi gabe bada ere ez da, haatik, horren urria dialektologiaren alorrean egin dena, hiztegiaren batez ere eta morfologian, aditaz bereziki. Sintasian ere badihardu jendeak lanean gogotsu azken denbora hauetan. Arinen landu dena, hizkuntzaren muina ez den arren, oinarritzakoa izan da: hizketaren entzuteari eta ahozkatzeari dagozkionak. Dena den, Bonapartegandik hasi eta Azkuek, Bähr-ek eta *Erizkizundi Irukoitza*-n izkribuz bildurikoetan maiz igerri diezaiokegu notazioaren azpian dagoenari. Hala ere, morfologiazko zerrenda horiek ere egia erdizka baizik ez digute ematen inoiz, *tíot* dakartenetan, adibidez, ukatzean erabiltzen den *-títot* ere sartu behar bailukete, axaleko *dítot* adizkirik entzungo ez bada ere. Nola nahi ere, azken urteotako ikerpenean ardura handiagoa izan da fonetikazko gaiak arakatzen, baita azentua eta doinue-rari dagozkienak ere.

Ondoren, Mitxelenak traskrizio sistimak aipatzen dizkigularik baliokide klase adina letra edo ikur beharko ditugula esaten digu, behar den adina hots mota bereizten ditugula. Era berean tramankuiluak izanagatik ere belarria trebatu beharko dugula azken finean hots eta soinuok paperean eman beharko baititugu. Bilketan, esaten digu, berri-emaile da arrazoi duena: honek bereizten duena berezi beharko dugu guk ere eta honek berdintzen duena berdindu eta honentzat axola duena izango da premiazkoa guretzat ere.

Baliokide-klaseak ezagutzeko eta kideak kideokekin biltzeko hiru maila bereizten dizkigu Mitxelenak bere txostenean: a) fonetika maila, b) fonologia maila, c) berriro fonetikari zuzenean atxikiz "azpiko" itxurapenen multzoarena. Oraingoz aski izango dugu lehen mailarekin, bigarrena eta hirugarrena geroko utziz. Egia esan, fonetika mailak oztopo larriagoak ekarriko dizkigu fonologikoak baino, fonologia egiteko, ordea, erabat ezagutu behar da alde zurretik aztertu nahi dugun euskalkia edo hizkera hori.

Belarri ernaia behar dugula esaten digu Mitxelenak hots ezezagunei antz emateko nork geure bahea dugularik askotan gehiegizko konfiantzaz bereizkuntza nabariak jaso gabe gelditzen baitira oharkabea, ALF-en bertan horrela gertatu omen zen eta berari ere bai Izabako mintzairan *ur/uR* adibideaz agertzen dugunez.

Beraz, lehen ikerketa honetan bereizkuntza fonetiko soilak jaso behar ditugu eta horretarako erabiliko dugun bahea erdikoa izango da, ez estuegia ez zabalegia ere.

Lanean aurkitzen ditugun oztopo bi aipatzen dizkigu Mitxelenak: Euskal fone-mak, bokaleak batez ere, urriak izatea eta fonetika gaietan jende prestatuak ez izatea. Bigarren hau konpontzeko bi bide proposatzen ditu: irakasle kanpotarrak gure-gana ekartzea edota zenbait lagun erbestera bidaltzea. Bitartean mintegiak antolatuz ekin diezaiokegu lanari ariketa horietan hizkuntza ezagun eta agian hobeto ezezagun-

netako zintak eta diskak erabiltzen ditugarik. Lan hauetan ari diren guztiek berdintsu jardutea komeni da *Erizkizundi Irukoitza*-koa bezalako anarkia gerta ez dakigun bederen.

Esan bezala, bigarren eta hirugarren mailak oraingo ahazturik gaia bilduko dugu eta noizpait izango dugu aukera analisis sakonagoak ere egiteko Praga nahiz Chomsky-Halle-ren ildotik. Horrela lan eginik eta gure fisikoek ere lagunduta ba omen daiteke geure-geurea den bidea asmatzea.

Bilketa hau presazkoa dela oroitaraziz bukatzen du Mitxelenak bere txostena, euskalkiak galtzorian baitira eta trumoiaren begira egon gabe oraingo ateraldiaz baliatzen jakin behar dugulako.

Irakurketa amaiturik elkarrizketa ireki da eta gehiena traskribaketaren auziaz izan da. M. J. Azurmendik, adibidez, bilketa hogeii lagunek edo egin arren traskribapenak zereginaren berri dakiten banaka batzuen ardurapean egon behar lukeela dio. Traskribatzaile gutxi izaki, bestalde, okerrak ere errazagoak izango dira zuzentzen beti berdintsuak izango direnez, bestela, esku askok parte hartuz gero anarkia kontrolagaitza sortuko da ezinbestean. A. Etxaidek, berriz, traskribaketa "zabala" behintzat erabili beharko dela dio eta horretarako ikastaro bat antolatzea komeni dela, denontzat. Traskribapen "hertsia" egiteko, aldiz, fonetista trebe eta aditu batekin kontatu beharko duela Euskaltzaindiak. Ukitu den beste gai bat adierazi beharreko datuena izan da, eta datu horiek fitxa batean bildu ala zintan bertan grabatu behar direnena. Fitxan eginik ere badirudi zinta bakoitzaren hasieran argigarriren bat ipini beharko dela zinta soila identifikatzeko. Hauek bederen aipatu dira jakingarrien artean: biltzailearen izena, bilketaren eguna, herria, auzoa, lekukoaren izena, adina, sorterrria, lanbidea, bai eta norekin ezkondua den ere.

* * *

Bigarren egunean, goizeko bederatzietan, A. Etxaidek eskaintzen digu bere gaia. Lehendabizi beraren lehen urratsak aipatzen dizkigu: 1965, 66 eta 67an Principe de Viana-ren laguntzaz Mitxelenak prestaturiko 300 galdera zituen galdekizun bat erabili zuen 70 herri koskorretan. *Fonética Histórica*-n aurki daiteke galdera haien funtsa. Lehen esperientzia batek izan ditzakeen hutsuneak gora behera orduan bildu zituen materialok argitaratzeko asmotan da. Harrezkero bestelako galdekizunak erabili ditu *Wunder and Sachën*-en arabera, erdaraz eta euskaraz.

Euskal hizkuntz-atlas batek behar duen herri kopuruaz mintzatu da ondoren. Beraren ustez 300 herri honelako bilketa baterako gehiagi direlarik aski izan litezke 175. Iparralderako Haritschelharrek aipatu dituen 51 tokiak onarturik, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian 40na herri eta Araban laupabost harturik 175 lirateke guztira. Bost ekiporekin, urtean hamarna herri eginez gero hiru urte 1'erdi iraungo luke bilketa eta traskribapen lanak, lasaixeago egitekotan lau.

Nafarroako herrien zerrendatik izen batzuk kentzea proposatzen du egungo egunean euskaldunik ez delakoan eta zerbait lorturik ere hutsune gehiagi liratekeelako galdekizunetan atlas batek eskatzen duen konparaketa lana burutzeko. Holako arrastoak aztarren bitxi edo direlako bildu nahi izanez gero besterik litzateke, ez dira ordea atlas baterako gaia. 175 herri nahiko sare trinkoa ditugu euskal atlas oinarritzeko. Atlas honek ohizkoak bezalako izan behar duelarik herri txikietara jo beharko da batipat, Lekunberrin edo Altsasun bildua ez bailitzateke horren baliagarria izango dialektologia egiteko. Irizpide hauetan erroturik A. Etxaidek Nafarroako

zerrenda berria banatzen du Batzordeak F. Ondarraren ardurapean egina areago zehaztuz eta zuzenduz. Elkarrizketan San Martinek, Satrustegik eta Ondarrak hartzen dute parte bereziki.

Aurrera jarraiturik, bilketan hasteko hobe dela halako euskalki mota "jator" egiten den herri batetik abiatzea dio A. Etxaidek, ibar bakoitzean ustez eredu edo izan litekeen herritik eta handik euskara ahulagoa duten edo euskalkiaren muga diren etara igaro. Honela mota horren irudia garbiagoa izango dugu eta irizpide zehatzagoa eskualdeko hizkerari antz emateko.

Antolaketaren organigraman lau lagun aipatzen ditu lehendabizi: zuzendaria, zuzendari ordea, diruzaina, eta inkesta eta traskribapen koordinatzailea. Azken hau eremu jakinari lotu gabe batetik bestera ibiliko litzateke elkarren berri eramanez. Bilketan bost talde ariko dira bakoitza 40 herriz arduratzen delarik; urtean hamarna herri egin ditzakete. Talde bakoitzean buru bat eta bigarren bat izango dira: buru denak galderak jaulkitzen ditu eta oso ongi ezagutu behar du galdekizuna, bigarrenak magnetofoiaren ardura izango luke, zintak gorde eta sailkatuko litzuzke, e.a. Hirugarren bat ikasle laguntzaile gisa ari liteke beronen eginkizuna inguruko hotsak uxatzea delarik edota mandatuak egitea. Satrustegi jaunak birekin ere aski litzatekeela diolarik ados da A. Etxaide ere.

Grabatu denaren traskribapena luzaro gabe hurrengo inkesta jaso baino lehen egin behar dela, dio: horrela zalantzak garaiz argitzeko eta okerrak zuzentzeko aukera izango dugu. Bi koaderno mota eramatea kontseilatzen du hizlariak. Batean oharrrak eta xehetasunak jasoko ditugu: zein baserritan ibili garen, nolako lekukoa aurkitu dugun, e.a. Bigarrena erantzun koaderno litzateke; bina koaderno toki bakoitzeko, bat erantzunak zikinean hartzeko eta bestea garbira pasatzeko. Berrehun herri izanez gero larehun koaderno erantzunak jasotzeko.

Lekukoa bilatzeko, informatzailea alegia, apaiza edo alkatearengana jo izan du. Buru argikoa izan behar du lekukoak, zuzen erantzungo duena eta zeren bila gabiltzan pitin bat bederen ulertuko duena. Euskaraz aski dakiene, noski, eta ongi ebakitzeko duena. Morfologia eta fonetikazko galdekizunak hobe da bakar batekin egitea, lexikoarena, berriz, bi lekukorekin ere egin daiteke, etxeko gauzak, adibidez, etxe-koandreaki galdeginenez eta laborantzakoak gizonari.

Saioek ez dute luzeegiak izan behar lekukoa nekatu egiten baita eta orduan erantzunak ahulak, motelak edota okerrak gertatzen baitira. Ordu t'erdi gehienik edo bi ordu, bat goizetik eta bestea arratsaldetik izanez gero. F. Ondarrak honetaz mintzo delarik lekukoak ez direla maiz nekeaz ohartzen dio, baina hurrengo egunean ezin izan dutela lorik egin aitortu izan omen diote inoiz, eta P. Uribarrenek zahar batzuri ordu erdiren buruan boza joan egiten zaiela, dio.

Tokia ere ongi aukeratu behar da: ikuilu edo ura darion iturri baten ondoan ez dira egokiak, adibidez. Tamalez askotan zaharrak ezin izaten dira batetik bestera mugitu eta sukaldean bertan egin behar izaten da grabaketa.

Harreman goxo eta naturalak behar dira baina denborarik galdu gabe, ritmo egokian eta disziplinaz grabatzen dugularik. Hamabost galdera egindakoan, esate baterako, magnetofonia itzal eta atsedentxo bat har daiteke, baina bitarteko elkarrizketa hori ere jaso nahi baldin bada beste nonbait grabatzea komeni da galdekizunaren haria eten ez dadin.

A. Etxaideren hitzaldia amaiturik askok hitz egin dute baina hitzaldian zehar ere etengabeko elkarrizketa arina izan da. P. Uribarrenek ahotan harturik, Bizkaiko herrien zerrendaz mintzatu dira J. M. Etxebarria eta J. L. Lizundia ere.

* * *

K. Rotaetxek goizeko hamaika t'erdietan hasten du bere azalpena bi galdekizun mota bereziz: atlas galdekizunak eta monografiak. Monografietan mintzaira baten alderdi ugariak uki daitezkeela dio, fonetika, fonologia, morfologia, sintasiari eta hiztegiari dagozkionak. Atlasetan, berriz, fonetika eta hiztegia dira aztertuenak; morfologia ere biltzen da baina nahi-ta-ez morfofonologia egin behar izaten dela, dio. Fonetikazko ikerketak egiteko aski galdekizun bereziak erabiltzen dira eta fonologia egiteko *pares minimos* direlakoan alderaketa. Morfologian paradigma guztiak sar daitezke base mota diferenteak gogoan dauzkagula. Zazpi base ditugu euskaraz bost bokaleak, Zuberoan sei, eta kontsonantedunak kontutan harturik. Axola handikotzat jotzen ditu K. Rotaetxek armonizazio fenomenuek eta adibide gisa *lagun* eta *gizon* baseen berezitasuna aipatzen digu, biek bukaeran *-n* duten arren batean *lagune* baitugu eta bestean *gizona* aurreko *u* hori dela eta, era berean, *mendixé*, ez *mendixa*, baina *mendixak* pluralean, Ondarruko hizkeraz. Azentu eta doinuarenak ere ez ditu ahaztu bere adierazpenean eta sintasiaz ari delarik nominalizazioen gaia aipatu du bereziki. Galdeketa dela eta erreferente batzuen zailtasuna aipatu du eta traskrizioan bokalis-moaz mintzatu da batipat hots hauei dagokien egitura fonetikoaren araberaino.

Inkesta biltzeko arau praktikoak emanez konfiantza hartu arte magnetofonia ez ipitea kontseilatu du eta bitartean oharrak idatziz jasotzea. Lekukoaren adiskidetasuna gureganatzen saiatu behar dugula dio eta honek zertara jotzen dugun beragana jakin behar duela nolabait ere. Galdekizunak asmatzerakoan helburu bereziak gidatu behar gaitu: nolako helburua halako galdera motak prestatuko ditugu. Jarrera dela eta berriemailea ezker aldean edukitzea gomendatzen du, eskuma aldera idazten baitugu eta honen arreta ez da desbideratu behar paperekoak ikusi nahiz. Biltzaileak, aldiz, ez du paperari lotua egon behar eta ahozkatzean lekukoaren ahoa, ezpainak, ikusi behar ditu *b/d* berezuntza, adibidez, atzemateko.

Lekukoaren datuak aurretik zintan grabatzea komeni dela uste du Karmelek, harengana joan baino lehen, eta kalkoz galdekizunaren kopia bat ateratzea gero erantzunak garbira errazago pasatzeko. Batzuek koadernoak erabiltzen dituzte erantzunak jasotzeko, beste batzuek fitxak, berak folioak. Materiale guztiok behar bezala biltzeko eta sailkatzeko kodigo gisako zerbaiten beharra aipatzen du, fonetikan, esaterako, F1, F2 ..., morfologian M1, M2 ... e.a. ipiniz bereizten ditugularik.

* * *

Arratsaldeko 3'30etan J. M. Etxebarriak hitz egin du Sever Pop-en oharrak eta bere esperientziakoak bildurik dialektologi lanetarako aholku praktiko batzuk emanez. Aurreko hitzaldietan esandakoak ez errepikatzen saiatu da. Lehenik Sever Pop-en lanaren, *La dialectologie* obra agortuaren berri eman du beronen edukira eta garrantzia azpimarratuz, eta gaiari atxikiz inkesta lanetan gogoan behar ditugun puntu batzuk azaldu ditu.

Honek ere galdekizuna nahi eta behar den xederako antolatu behar dela esaten du. Lekukoa dela eta, berriz, herrietara joan baino lehen fitxak bidali daitezkeela dio nolako lekukoak nahi ditugun adieraziz, gero, bertara joanik bat edo bi hauta ditzan.

gun horien artean. Alde horretatik aurre-inkestaren garrantzia eta baliagarritasuna azaltzen du Etxebarriak.

Lekukogaien aurre aukera honek bitarteko baten laguntza eskatzen du; bitarteko hau arduratuko da aldez aurretik lekukoak aurkitzen eta fitxak betetzen. Leku-koari garbi agertu behar zaio gure asmoa, bertako euskara nahi dugula, alegia, ez Tolosakoa. Biltzaileak lekukoaren ordu eta ohituretara makurtu behar du honen etxeko bizimoduan nahastekarik izan ez dadin. Grabatzerakoan gertatu ohi diren usteka-beei itzuri egiteko leku egoki bat bilatu behar da eta etxean ezin delarik herriko leku baketsu eta isil batera joan daiteke, elkarte batera, soziedade batera edo beste nor-nahi. Taldean edo lagunartean egiten diren grabaketak arriskutsuak izaten dira eta aski nahasiak suertatzen dira maiz batek baino gehiagok hitz egiten dutelako batean edota bozak identifikatzeko zailtasunak ere badirelako.

Biltzaileaz A. Etxaidek esanak ontzat ematen ditu Etxebarriak, egutegi bat behar dela, zuzendaria, e.a. Dialektologiazko bilketak egitea lan gogorra dela oroitarazten digu, ez atsegina, ez dela turismo egitea eta seriooki egitekotan ez dela larunbat eta igandeetan egiteko utzi behar den lana. Biltzailea, bestetik, lekukoaren izakerari makurtu behar zaio; ez du autoritario izan behar. Biltzaileak, azkenik, entzuten jakin behar du eta entzuten duena traskribatzen ikasi behar du oharkabean berea edo inguruko euskararena paperean isuri gabe.

Bukatzeko grabaketaren alderdi tekniko batzuk gogorarazi dizkigu Etxebarriak. Tokia eta garaia ongi aukeratu behar dira. Tresnei gagozkiela hobe da zinta zabala eta libreka kaseta baino eta zenbat eta abiadura bizkorragoan grabatu hainbat garbiago jasoko dugu. Nolako fusibleak behar diren eta bada-ek pada ere aldagarriak eraman behar ditugula. Mikroak unidirekzionala izan behar duela inguruko hotsak bereganatuko ez baditu eta edozein tresna elektronikorekin behar den arretaz ibili behar dela esaten digu, kolperik eman gabe, eguzkitan utzi gabe, e.a.

* * *

Arratsaldeko Setan jardunaldien ondoko erabakiak hartzeko asmoz J. M. Satrustegik daramatza elkarrizketaren hariak.

Udarako proposatu den galdekizuna luzatu ala moztu behar den eztabaidatzen da, zer erantsi, zer alda eta zer zuzendu, forma mugatuak ala mugagabeak eskatu behar diren ala bietarikoak. Zenbait lagun beren oharrak batzordera eskutitzez bidaltzekotan gelditu dira. Galdekizuna ez da luzeegia eta goiz edo arratsalde batean erraz burutzen ahal da.

Ezer erabakitzen ez bada ere lantsariena aipatzen da: lanaldiak orduka edo nola ordaindu, bidaiak, ostatu dietak, e.a. Satrustegi jaunak udako lan honetarako norbait liberatu behar den galdeginik ezetz erantzuten zaio.

Hamaseik eman dute izena uda honetako bilketan, bakarka nahiz lagun batekin, parte hartzeko: J. San Martin, J. M. Etxebarriaren laguntzaz, Eibarren ariko da; A. Etxaide eta B. Muniategi, Sakanan; Baztanen, Goizuetan, Esteribar eta Aezkoan; M. Salinas Lekeition; E. Knörr Etxague, Elosu, Legutiano, Urrunaga eta Urbinan; R. M. Pagola, Bortzirietan eta Basaburua Txikian A. Etxaiderekin koordinaturik; X. Altzibar eta X. Videgain elkarrekin Markinaldean eta Zuberoan; P. Uribarren Aramaion; M. J. Azurmendi Hernani aldean; K. Rotaetxe Bakion; F. Ondarra Burundan eta Urdazubin; J. M. Etxebarria Sopolau, Azkoitia eta Ataunen; J. Casenave Azpar-

ne aldean; G. Aurrekoetxea Arratian; A. Irigoyen Allustin eta J. A. Letamendia Hondarribian.

Zenbaitek beren grabagailuak badituztela eta badirudi Euskaltzaindiak erosi berri dituenekin denontzat iritsiko direla estuasun handirik gabe.

Epeak jarririk, eskutitzez egindako oharrak hurrengo Maiatzaren 15erako bidaltzea erabakitzen da eta 21ean bilkura bat izango dela arratsaldeko 6'30etan Donostiako Diputazioan. Udako lanak, zintak eta traskribapenak, Irailaren 30rako eman beharko dira eta Urriaren 16an, larunbata, bilkura bat izango da egindakoa aztertzeko eta hurrengo pausoak erabakitzeko.

Herrialde bakoitzeko arduradun bat izendatzen da: Iparralderako X. Videgain; Goi Nafarroarako A. Etxaide eta Hegoaldeko beste hiru probintzietarako J. M. Etxebarria. Bestetik, ez dela lan honetarako jende berririk hartuko erabakitzen da. Batzordean idazkari berria behar delarik J. M. Etxebarriaren izena proposatuta, aho batez onartzen dute batzordekide guztiek.

Jardunaldiotako azken hitzak A. Villasantek esaten ditu. Euskaltzainburuak zorionak ematen dizkie bilduei bi egun hauetan egindako lanagatik euskal dialektologiaren bideetan aurrerako urrats nabarmena gertatuko den itxaropenetan.

AZENTUARI BURUZKO BARNE JARDUNALDIAK

Azkoitia, 1982-VI-11, 12

Gotzon Aurrekoetxea

Joan den Ekainaren 11 eta 12an, Azkoitian, "Azentuari buruzko Barne Jardunaldiak" eratu ditu Euskaltzaindiak. Jardunaldiok Gasteizen Azaroan egindako batzarraren ondorio dira. Bertara Euskaltzain, eta Euskaltzaindiaren Lagunak, institutuetoako euskarazko katedradunak eta beste zenbait izan ziren konbidatuak. Denetara 20ren bat lagun bildu ginen Insausti Jauregian.

Jardunaldioi hasiera Azkoitiko alkate jaunak, R. Sudupek, eta J. I. Uriak "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" elkarteko Gipuzkoako lehendakariak eman zieten, goizeko 10'erdietan. Ongi etorriak eta probetxurako bilerak izan zitezela ager araziz. Ondoren J. I. Uriak usadioaran haria ez galtzeko "ardo pixkat eta ogi pixkat" eskaini zigun bilerak hasi baino lehen.

Erantzunez Villasante jaunak, Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak eman zizkien Azkoitiko alkate eta J. I. Uriari eman ziguten harreragatik. Ondoren Villasante jauna gaira pasatu zen, jardunoi hasiera emateko. Jardunaldi hauen aurkezpena lau puntutan egin zuen:

1. "Nondik sortu zen jardun hauetako asmoa?" izan zen lehen puntua. Duela bi urte inguru sortu zen eztabaida Euskaltzaindian "Bilbo Zaharreko" Euskaltegiko irakasleek egindako eskariaren ondoren, eta Azaroan Gasteizko bilera eta Martxokoaren ondorio dira jardunaldiok.
2. Jardunok ez direla prezeski deus erabakitzeko.
3. Ez dela hau kongreso bat, maila apalagoko zerbait baizik.
4. Irakaskuntza eta komunikabideei buruz abiatuak egin nahi dutela.

* * *

11 etan "Lukas Zufiaurre, urdiaindar zenaren zintetan hartutako ipuin kontaketa eta elkarrizketak entzutea eta, jarraian, eztabaida orokorra" izan genuen.

Zintok, J. M. Satrustegi jaunak aurkeztu zituen. Berak azaldu zuenez 1965. urtean hartuak ziren.

Zintak entzun ondoren elkarrizketarako unea zabaldu zen. Hasiera hasieran agertu zen problema azentu ezberdinak daudela ("normala eta enfatiko" K. Rotaxeren hitzetan) izan zen. Eta beharbada ipuinetako azentua eta hizkuntza normalean gertatzen direnak ezberdinak izan daitezkeela (J. M. Satrustegi).

Bestalde “azentua eta doinua” (Villasanteren hitzetan) eta azentua eta entonazioa (“Doinua eta entonazioa ez dira bardinak” K. Rotaetxe) bereiztu behar zirela ere esan zen.

Beraz, lehen urratsa eta gaiari egiten zitzaion lehen hurbilketa.

* * *

Ondoren K. Rotaetxe anderea “Azentua eta entonazioa. Oinarri teorikoak eta euskarari aplikazioak” gaiari buruz aritu zen. Funtsean eta laburki hau esan zuen: Soinuek 3 parametro dituzte. Perzepzioaren aldetik hauek dira: iraupena, intentsitate edo indarra eta doinua.

Bestalde, azentua ardats paradigmaticoan ematen da. “Kontrastez” ematen da. Eta azentua hitzari dagokion fenomeno da. Entonazioa, ordea, perpausari dagokiona.

Euskaraz, basea bakarrik hartuz, esan daiteke azentua 2. edo 1. silaban ematen dela; atzizkiak sartzen direnean alda daiteke zertxobait, ezpada ere.

Azentu hori markatzeko ’ marka jartzen du. Beronek silaba horren eta ondorengoentz azenturik eza adierazi nahi du.

Hitzaldiaren ondoren elkarrizketa zabaldu zen. P. Altunak -(r)en atzizkia azentuduna dela euskalki gehienetan esan zuen, eta bestalde badaudela bikoteak: segurue / segurue (seguro de vida). MoMurraught-ek Mendebaldean azentua fijoia dela eta Azurmendi ea merezi ote duen ortografian azenturik ipintzea, azentua fijoia bada, galdetu zuen. P. Altuna, Areste ere, gutxienez euskaldun berrientzat, singular/plurala bereizteko azentuaren aldeko zela adierazi zuen.

Arratsaldeko 6,30 ak aldera, K. Mitxelena Jaunak “Zenbait euskalkitako azentuaren funtsezko oinarria” gaiaz hitzegin zuen.

Euskal Herriaren zati handi batean azentuaren modu antzekoa dela nagusi esan zuen. Eta euskalkiak bi zatitan banatzen direla: Alde batetik B., G., eta NG. eta bestetik Erronk., Z. eta Hegoaldeko NG. Azken hauek gaztelanierazko eta gaskoiaren azentutik hurbil daudelarik.

B., G., eta NG finkatuz maiz entzun da singularra eta plurala ez direla berdin azentuatzen. Gutxi dira singularra eta plurala bereizten ez dituzten hitzak.

Izenei buruzkoa amaitu ondoren, adjetiboez eta hitz konposaketaz aritu zen.

K. Mitxelena jaunaren hitzaldiaren ondoren, elkarrizketa zabaldu zen. Honetan P. Altuna eta Mitxelenaren artean azentua nola “markatu” behar zen eztabaida hasi zen: Ala ’ (Mitxelenaren joera) ala ’ (P. Altunarena).

Eztabaida honen ondoren beste hau ere agertu zen, hots, non joan behar duen azentuak.

* * *

Larunbatean, goizean, 9’30 ak inguruan, J. Basterretxea jaunak “Gernikako hizkeraren arabera, euskal entonazioari buruz ikerketak” gaiaz mintzatu zen.

Izen entonazioan singularra eta plurala bereiztu behar dira.

1. Singularrean honelako entonazioa dugu:

Ondoren izen propioen zerrenda egiten du eta azentuaren legeak ateratzen ditu:

1. Legea: ez dagoela 3 silaba baino gehiagoko izen geografikorik azentua 1. silaban duenik. Hiru silabadunak eraman lezakete lehenean azentua: Elántxobe Eskória-za...

2. Legea: ez dago izen geografikorik azentua 2. silaba baino atzerako eraman lezakeenik.

Ondoren izen arruntak ikertzen ditu: ez dago 3 silaba baino gehiagokorik azentua lehengoan duenik. Hirukoak bai: bárkua, bástua... Hau jenerala da Bizkaian eta Gipuzkeran. Euskaraz ez dago hitzik lehen azentua 2. silaba baino beranduago duenik. Beraz irakásle eta horrelakoak gaizki daude (irákasle...). Orduan, hitzak bitarikoak dira: prototonoak (1. silaban dute azentua) eta ditoptonoak (2. silaban).

2. Pluralean beste entonazio bat dute. Izen arruntek bereiztu egiten dute singularra eta plurala. Pluralean.

Aditzean pluraleko entonazioa agertzen da.

* * *

Eta ondoren elkarrizketa: P. Altunak Azpeitia eta Azkoitian oso ezberdin egiten dira. Zuk esan duzuna Azkoitian ematen da, baina Azpeitian ez. Eta Juanito San Martinek ere berdintsu gertatzen dela Elgoibar eta Eibarren, esaten du: Mánuel, Iñáki... (Elgoibarren) eta Manuel, Iñáki... Eibarren.

Altunak berriz Azpeitian azentua 3. silaban duten hitz asko dituztela dio: Estremáduna, Kardabéraz... Eta A. Irigoienek Arratian ere berdín ematen dela, gainerazten du.

Eztabaida bigarren silaban eta 3. silaban azentuatzen diren hitz eta tokiez zentatzen da, bertan A. Irigoien, K. Rotaetxe, E. Knör, P. Altuna, I. Laspiur, J. M. Satrustegi, Villasante, Lizundia, A. Ondarra eta J. Basterretxea berak parte hartuz.

* * *

11 ak aldera, atsedenditxo bat ematen da 11'45 inguruan berriz hasteko.

Ordu honetarako "Teri Ibarrola, aulestiar anderearen ipuin kontaketa entzutea, bai diskaz eta bai, agian, zuzenean" iragarrita zegoen, baina lehen partea bakarrik izan genuen entzuteko aukera, gaixorik baitzegoen.

Ipuinak entzun ondoren, berriz elkarrizketarako unea. Eztabaida era askotakoa bihurtu zen. Lehenik, ipuin sistemak ez digula balio gure mailan, maila apalagoan gaudelako norbaitzuren eritzik, eta telebista eta irratiatarako beharrezko dugula euskal entonazioa, beste batzuren eritziz.

Gero, esaldi bat esateko melodia asko dagoela euskararen baitan eta zein zen jatorragoa galdetzeraino iritxi zen P. Altuna. Erantzunez, melodia horiek guztiak ondo eta onak zirela, baina ez erdal azentua, "soparaino" sartzen ari zaigun azentua, hartu zuen.

Azkenik, modelo edo eredu baten bila joan behar zela eta Euskaltzaindiak eredu bat proposatu beharko lukeela eta irakaskuntzan ahozko hizkuntzari garrantzi handiago eman behar zaiola ere, hitzegin zen.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzari zuzentzea onartu zen, irakaskuntzan ahozko hizkuntzari garrantzi handiagoa eman diezaiola, eskatuz.

Arratsaldean, 4etan G. Lertxundi jaunaren txostena “hitzak nola kantuan josi nota azkarrei, gaurko napar-lapurtar euskara azeno gabean” irakurri zuen Arana Martija jaunak.

Lehenbizi, Arana Martijak G. Lertxundiren bizitza eta lanak azaldu zizkigun eta txostena irakurri ondoren, elkarrizketa orduan, Lertxundi aurrean izan gabe ez zegoela elkarrizketa egokia egiteko aukerarik eta, goizean amaitu gabe utzitako Euskal Jaurlaritzari zuzendu behar zitzaion gutun edo adierazpenaren zirriborroa, onartzera pasatu zen.

Azkenik, 6 etarako programaturik zegoen J. I. Goikoetxea “Gaztelu” jaunaren lana ez zen izan, gaixorik baitzegoen; (beraren lana, “Azentua neurtitzetan” zen).

**BI EUSKALTZAIN,
“DOCTOR HONORIS CAUSA”
IZENDATUAK**

**PIARRES LAFITTE Jauna, Euskal Herriko unibertsitateak,
“Doctor honoris causa”**

1982.eko Maiatzaren 27an, Euskal Herriko Unibertsitateak, *Pierre Lafitte* jaun euskaltzaina “Doctor honoris causa” egin zuen. Hobeki esan, egun horretan izendapenaren festa ospatu zen, beste jaun batzuen ere ospatu zen bezala, hots, Lakarra eta Iruxorena. Ospaketa hau, Leioan izan zen. Bertan egon ziren K. Garaikoetxea Lehendakari jauna, P. M. Etxenike, Hezkuntza Sailburua, G. Monreal Unibertsitateko Erretorea, etab. L. Mitxelena jaunak egin zuen doktor berriaren aurkezpena, Lafitteren lanak eta merituak azpimarratuz. Sociedad Bilbainan egindako bazkari batekin bururatu zen jaia. Zer esanik ez, Euskaltzaindiko jaun askok parte hartu zuela Lafitte jaunaren omenaldi honetan.

Fray Luis Villasante



Ezkerretatik eskumatara: Jean Claude Martin, Akitaniako Akademi eremuaren Errektore Kantzilerra; Domínguez Ortiz historiagilea; M. Pérez, Bordele III Unibertsitate lehendakaria; Koldo Mitxelena; Jean Haritschelhar.

LUIS MITXELENA Jauna, Bordeleko III. Unibertsitateak, “Doctor honoris causa”

Ekainaren 15ean, aldiz, Bordeleko Unibertsitateak, *Luis Mitxelena* jaunaren izendapena ospatzen du. Hori dela, Euskaltzaindiak antolatutako autobus bat joan zen Bordelera, Bilbo eta Donostia aldeko adiskidez ongi hornitua. Ospaketa hau arratsaldean izan zen. Mahaiburuan, Jean Claude Martin, Akitaniako Akademi eremuaren Errektore Kantzilerra eta M. Pérez, Bordele III Unibertsitate lehendakaria. J. Haritschelhar jaunak egin zuen izendaberriaren aurkezpena, haren bizitzea, lanak eta mereziak gogoratu. Ondoren Mitxelenak berak gaskoin hizkeraren euskal sutraiez egin zuen mintzaldia. Ospaketa berean ospatu zen Domínguez Ortiz historiagile jaunaren izendapena ere. Itzultzean, afari bat eskaini zioten Mitxelena jaunari bere adiskideek Donostian, eta geroago, Ekainaren 24ean, beste bat Gasteizen.

Zorionak bioi Euskaltzaindiaren izenean! Esan behar da, gainera, euskarak sarrera aski handia izan zuela egun haietako mintzaldietan.

Fray Luis Villasante



ACADEMIA LA LLINGUA ASTURIANA

Rvdo. P. Luis Villasante

Euskaltzaindia

Arbieto 3. Bilbao-8

Excmo. Sr.:

La Academia de la Llingua Asturiana recibió con gran satisfacción el acuerdo de la Real Academia Vasca por la que acepta que su presidente sea miembro de honor de la Academia de la Llingua Asturiana.

Esta Academia, por otra parte, quiere en un acto público —que se celebraría en principio en Oviedo el 22 de enero de 1982— hacer la presentación de sus miembros de honor y correspondientes. A tal efecto ha programado una serie de actos que culminarían a las 18 horas con el citado acto público de presentación.

En dicha sesión nos parecería bien que los miembros de las Academias del Estado dirigieran un saludo a la Asturiana para, acto seguido, participar en un coloquio público sobre la situación actual de las llamadas lenguas minoritarias.

Nos gustaría poder contar con su presencia y nos sentiríamos muy honrados con este apoyo moral. Como es obvio la Academia de la Llingua Asturiana correría con los gastos de estancia y desplazamiento.

De todas maneras nos agradecería que tanto sus sugerencias y observaciones como la confirmación de su asistencia se nos comunicara bien a la dirección que señalamos bien al teléfono (985) 21-82-26.

Reciba el más atento saludo de

José Luis García Arias
Presidente

Oviedo 12-12-1981

(c/ García Conde 11,7. A. Oviedo)

A LA ACADEMIA DE LA LINGUA ASTURIANA

Oviedo, 22-I-1982

Fr. Luis Villasante - Presidente

Sr. D. José Luis García Arias, Presidente de la Academia de la Llingua Asturiana.

Señores miembros de dicha Academia.

Señoras, Señores:

En estos momentos yo querría dirigiros estas palabras de saludo, de agradecimiento y de felicitación en *llingua asturiana*. Lamento no poder hacerlo. Por ello tendré que servirme de nuestra lingua franca, la castellana.

He dicho que mis palabras quieren ser de agradecimiento y de felicitación. De agradecimiento en primer lugar, ya que por mi condición de Presidente de La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia me habéis querido nombrar miembro de honor de la Academia de la Llingua Asturiana. Ello es para nosotros —y lo digo en plural, pues hablo en nombre de Euskaltzaindia— un gran honor, a la vez que un motivo de satisfacción, de gozo y de esperanza.

Creo, en efecto, que todas las lenguas de España tienen algo, y aun mucho, que ver unas con otras, y que los que nos interesamos por preservar este patrimonio debemos aunar nuestros esfuerzos, conocernos mutuamente y mantener unos con otros relaciones fraternas. Creo además que debe quedar claro que esta obra no va dirigida contra nadie. Aspira simplemente a preservar y a cultivar el patrimonio cultural de nuestros respectivos pueblos.

Vaya, pues, por delante nuestra más efusiva y sincera felicitación, nuestro saludo entrañable en estos momentos en que la Academia de la Llingua Asturiana inicia su andadura.

Ya sé que no es esta la ocasión para hablar sobre relaciones entra la lengua vasca y la asturiana. No obstante, no puedo menos de recordar que en las Encartaciones de Vizcaya conviven, como se ha hecho notar, topónimos y vocablos vascos con otros de procedencia asturiana, debido sin duda a que en algunas épocas de la Alta Edad Media la comarca perteneció al reino astur-leonés.

También recuerdo con fruición y añoranza aquella sesión académica —celebrada el 26 de Marzo de 1975— en que el miembro correspondiente, hoy finado, D. Mikel Zarate, habló de la *xiriga*, especie de argot de canteros, que se conoce en algunas partes de Asturias. Por lo visto, hubo toda una dinastía de canteros vascos que se estableció en Asturias, y aunque al cabo de varias generaciones, como es natu-

ral, perdieron su lengua originaria vasca y adoptaron la asturiana, no obstante, las palabras propias de su oficio de cantería las seguían, y aún las siguen empleando, tomándolas del vasco, muchas veces sin tener conciencia de ello.

Estos simples datos que, sin duda, se podrían ampliar muchísimo, son una muestra fehaciente de lo que decíamos sobre las mutuas relaciones que han existido entre nuestros pueblos y lenguas. Que el acto de hoy constituya un hito importante para el estrechamiento de estas relaciones.

“*Debile principium melior fortuna sequatur*”, escribió el protopoeta vasco Dechepare cuando en 1545 publicó el primer libro en lengua vasca. Estos son también mis votos en este día en que la Academia de la Llingua Asturiana nos acoge en su seno. ¡Enhorabuena y gracias! Zorionak eta Eskerrik asko!

* * *

Gau on, Jaun-Andreak!

Zinez eta zintzoki aitortu behar dut pozez gainezka nagoela gaurko ospakizun honetan. Asturiasko hizkuntzaren Akademia ez da gaur sortzen, noski, baina gaur kaleratzen da. Bejondeizuela! Pozez ikusten dugu, gainera, gogotik ari zaretela lanean: hiztegiak, elaberriak eta ortografi arauak atereak dituzuela, alegia. Esan beharrik ez dut gure onginahirik eta borondaterik oso eta beteena duzuela. Neurri handi batean, zuen asmoak eta gureak, berberak dira. Elkar ezagutu behar dugu, eta elkarren berri jakinez lan egin. Goazen, bada, aurrera!

EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGI-LANAZ ZENBAIT GOGOETA

Gasteiz, 30-IV-1982

E. Knörr

Hondarribian erabaki zena hezurmamitu behar du orain Euskaltzaindiak. Horretan lagungarri, ustez, horra zenbait gogoeta labor baino laburrago.

Lehendabizi, lantokia *hiztegiez hornitu* behar dugu, hots:

1. Salgai aurkitzen diren euskal hiztegiak erosi (Azkue, Lhande, Löpelmann, Retana, Kintana, L. M. Muxika, P. Muxika, e.a.).
2. Orobat lehengo eta oraingo hiztegitxo eta hitz-bildumak (Izagirre, Landucci, Añibarro, Bouda-Baumgartl, Iztueta, e.a.) hemen izan behar ditugu.
3. Komeni zaigu halaber zenbait erdal hiztegi erostea honako (Coromines, Palay, Robert, Moliner, Wahrig).
4. Euskal hiztegiez idatzi izan dena ere on genuke eskura izan (Mitxelena jaunaren *Fuentes del diccionario de Azkue*, FLV-ko beraren artikulua bederen).
5. Euskal testuen hautapen bat ere beharrekoa da (*Hordagok* argitara emanak, gure *Lekukoak*, e.a.).

Pertsonak

Honetan ere ez naiz luze mintzatuko. Mitxelena jaunak beharko luke, Batzordeburu denez, bere iritzia eman. Beste aldetik, bada San Martin jaunaren txostena, puntu hau ukitzen duena, eta xehekiro gainera. Nolanahi ere, honetara izan daiteke era-tua giza-indarra:

- Ibon Sarasola, Batzordeburuaren laguntzaile ararteko.
- E. Knörr, erantzule orokorra.
- R. Badiola, fitxagintzan ariko direnen arduraduna.
- 2-3 fitxagile.

Lan prozedura Batzordeburuak markatuko du eta ez da hemen zertan jardun. Soil-soilik oroitarazi nahiko nuke bina fitxa eginen zirela esan zela. Eta, jakina, lantokion burutzen den lanak bere jabea duela.

Azkenik, *hiztegi hiritartuan* hasi baino lehen, nahitaezko dirudi Euskaltzaindiak zenbait puntutan erabakiak hartzea, hala nola *Instituto/Istituto*, *Geografia/Geographia* (/Jeografia inola ere ez, edo?), e.a.

Zuen zerbitzuko.

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ASMOA ETA HELBURUAK

Bilbo, 1982-VII-30

Juan San Martin

Jagon Sailburua

Euskaltzainkide, idazle eta entzule guztioi, agur:

Gizarte zibilizatu batean, literatur ekintzak bultzatzen ez dituen herriaren hizkuntzak, eztu etorkizunik.

Gure herri hau, beraren nortasunez, besteengandik gehien bereizten duena, hizkuntza da. Euskarak eman bai zion Euskal Herri izena. Horregatik, berezkoa du gure herriak, nortasunaren iraupenez, bere hizkuntzari begiratu beharra.

Hizkuntza bakoitzak bere premia bereziak ditu, beraren izateak mugatzen dituen premiak eta horiek inork ez ditu bideratuko euskaldunok izan ezik.

Literaturgintzaren aurrerabidea, inondik etortzekotan ere, euskaldun idazle edo egileak behar bezala laguntzetik letorke. Baina, horiek ez dute ezer ganorazkorik lortuko beren artean bildu eta behar bezalako antolakizunak eta plangintzak burutzen ez badituzte.

Asmo hori dator Euskal Idazleen Elkartearen baitan. Lehen lehenik, 1968an sortu zen Elkartea eratzeko asmoa, Gerediaga Elkartek, Ermuan euskal idazleen jardunaldiak antolatzean (1). Eta, haren ondorenez, 1969.eko Irailean, Baionan, barne-arautegi bat ere egin zen. Baina garai haietan ez zegoen aurrera egiterik. Urte nekezak ziren haiek honelako asmo bat aurrera eraman ahal izateko. Azken ahaleginak, Euskaltzaindiaren babespean, 1979.ekoak dira, nortasun juridikoaren eskaria eginenez; baina, arautegiaren pundu batzurengatik ez zen onartua izan.

Euskaltzaindia aipatu dudanez, argi utzi dezadan, aspaldidanik datorrela euskara hizkuntza normalizapenaren bideetara eramatea, horretarako behar diren bideak aukeratuz, 1979.eko Abuztuaren 28tik 30era bitartean Foruan egin ziren jardunaldien arabera (2). Hain beharrezko diren azpiegiturak sortu eta beraren bidean jartzeaz.

Euskarak gaur egun duen prolemarik larrienetako bat sorketazko literaturgintza da eta ahalik eta soluziorik egokiena eman nahi genioke arazo honi. Urte honen hasieran asmo hura indarberritu genuen. Horretarako, idazleei dei egin genien Otsai-

(1) Ikus *Jakin* aldizkaria, 31-32 zenb., 1968, 73. orrialdean.

(2) Ikus *Euskera*, XXIV, 1979, 825-830 orr. (bereziki, 822 orr.).

laren 25ean, Gipuzkoako Diputazioan bilera egiteko. Batzorde probizional bat izendatu zen Euskal Idazleen Elkartearen lanak eta helburuak finkatzeko, arautegia berritzeko eta egileen mutualitateaz informatzeko. Eginkizun horiek burutzean berriz bilera bat egiteko. Beraz, horren ondorena dau gaurko hau. Eta batzordeko idazkari izendatu zen J. M. Velez de Mendizabalek emango dizkigu xehetasunak. Ondorean, Elkartearen nortasun eskubide eskariak egiteko. Eta, nortasun juridiko hori lortzen duen une beretik utziko du Euskaltzaindiaren babes beraren bidea jarrai dezan.

Bide berriak urratzea, idazle berriei leku ematea, bizitzaren legeak ez ezik kulturetzak berak eskatzen diguna da. Holako elkarte batean edozein idazlek bere lekua izan dezala, ezker naiz eskubi, euskara batukoek naiz bestelakoek. Hots!: Euskal Idazleen Elkarte, soil soilik, elkarte kolezial erara sortzen da; beronen eginkizuna, egileen interesak defenditzeko denez gero.

Egilea nola promozionatu eta beronen alde laguntzak nola lortu. Hein batean, hori izango da beraren egitekoa.

Liburuari dagokionez, kontratuak nola egin, eskubideak gordetzeko. Legearen arabera, salmentetatik ehunetik hamarrekoa egileari gordetzea, aldizkariak eta egunkariak ohi den bezala ordaintzea. Eskubide horiek inori parkatzeotan, kultur aldizkariari barkatu beharko zaie, komertzialak ez direnean. Hala ere, euskal idazleak badu nahiko zama bere hizkuntza hain tipia izatearekin.

Hain zuzen, hizkuntza tipia eragoerak berak behartzen du idazlea elkartasunera, egileen alderako ekintzak eta laguntzak bateratuz eskubideak lortzeko.

Bestalde, argi geldi bedi, Estatu mailako legeztatena izango duela, euskarazko idazlea ahalik zabaldu hartzearen. Nortasun juridiko horren eskariaren berri emango zaie lau Diputazioei eta Eusko Jaurlaritzari. Beste estaturen baten barnean euskal idazleentzako elkarerik sortuko balitz, harekingo harremak ongi letorzko, baina baita ere erdaretako idazle elkarteekin, bereziki beren nortasuna duen estatukoekin, legeen arabera antzerako arazoak izango dituztenez. Dena dela, elkartekideak edo beronen zuzendaritzak hartu beharko ditu era horretako erabakiak, non nola jokatu behar duen jakinez.

Beste gabe, euskal idazleok ere, gogoan har: txikiak handia bentzi ledi, asmoz eta jakitez. Beraz, aurrera begira, *Ekin eta Jarrai*.

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEKO ARAUDIA

Euskal Herria gogoan edukitzen delarik Euskal Idazleen Elkarteak gure Herriko idazleen arragoa izan nahi luke, hari izana euskarak ematen baitio.

Hasiera batetan, Elkarteak Euskaltzaindiaren adar bat bezala eratzten da. Beraz, Euskaltzaindiaren beraren Estatutuak onartzen ditu, eta Elkartearen bulegoak Azkue Bibliotekan (Ribera kalea, 6, Bilbao-5) egongo dira.

* * *

Elkarteko kideek honako Barne-Araudia onartzen dute:

1. Euskal Idazleen Elkarteak honako helburu nagusi hau beteko du: edozein kidek lanean aritu ahal izateko behar duen giroa *hobeagotzen* saiatuko da. Hau dela eta, Elkarteak kideen eskubide *moral eta ekonomikoak* zainduko ditu.
2. Elkartearen iraupena mugagabea da.

KIDEAK

3. Elkartearen kide izateko, gutxienez, ondoko baldintzetako bat edukiko du betea idazleak:
 - a) Euskaraz idatzitako *liburu baten egile* izatea. Sail honetan literatura sortzaile nahiz zientifikoa erabili dutenak sar daitezke.
 - b) *Liburu oso baten euskaratzaile* izatea. Edozein literatura mota izango da onartua.
 - d) *Berrogei eta hamar artikuluko* egunkari edo aldizkarietan euskaraz idatzita edukitzea.
 - e) Aurreko baldintza bat ere ez bete arren Elkartearen Batzar Nagusiak, beraren ustez meritu berezirik duen idazlea *Ohorezko kide* izenda dezake.
4. Aurreko arauetan aipatutako baldintzetako bat betez gero, Elkartearen sartzeko kidegaiak azaldu behar duen eskabideari ez dio inolako eragozpe-rik ezarriko.

5. Elkartetik irteteko bi bide dira:

- a) Norberaren borondatez.
- b) Batzar Nagusiaren erabakiz.

* * *

6. Kideak honako eskubide hauek ditu:

- a) Elkartearen helburuetan parte hartzea.
- b) Elkartetik borondatez irten ahal izatea.
- d) Elkartearen ekintzak ezagutu eta haren dokumentapena aztertu ahal izatea.
- e) Beraren eritziak libreki ezagutarazi ahal izatea.
- f) Batzar Nagusietan abots eta botorik edukitzea. Botoa pertsonalki nahiz ordezkari baten bitartez eman ahal izango du. 3e. arauan aipatutako Ohoerzko Kideak ez du botorretan eskubiderik izango.

7. Kideak honako beharkizun hauek ditu:

- a) Elkartearen izen ona zaintzea.
- b) Estatutuak, Barne Araudiak eta Batzorde Zuzentzaileak agindutakoa betetzea.

8. Kideak urtero Batzar Nagusiak onartutako suaroa ordaindu beharko du. Ohoerzko kideek ez dute beharkizun hau bete beharko.

9. Edozein kidek Elkartearen dokumentapena eta kontuak aztertu ahal izango ditu Batzar Nagusi Arruntaren aurreko hamabost egunetan.

10. Kideak egin behar duen proposamen, kexa... onartua izan hal izateko *idatzita eta sinatuta* bidali beharko dio Batzorde Zuzentzaileari. Honek aztertu eta erabakiren berri eguneko batzar-agirian jasoko da. Idazkia igorri duen kideari erantzuna idatzirik emango zaio.

BATZAR NAGUSIA

11. Elkartearen *subirnotasuna*, Batzar Nagusian datza.

12. Elkarateak *urtean behin* ospatuko du bere Batzar Nagusi Arrunta. Deia euskal prentsaren bidez egingo da hogeitamar egun lehenago, kide guztiei gaztigu bana bidaltzen zaielarik. Honen bidez, eguneko gai-zerrenda adieraziko da. Hauek izango dira, gutxienez, erabili beharreko gaiak:

- a) Urteko Balantze eta Kontuen azalpen eta, bere kasuan, onarpena.
- b) Hurrengo urteko aurrekontua.
- d) Batzorde Zuzentzailearen asmo eta helburuak.
- e) Kideek azaldutako proposamenak.
- f) Galde-erantzunak.

Lehen deialdian Batzarra ontzat eman ahal izateko *kideen kopuruaren erdia*, pertsonalki nahiz ordezkarien bidez, aurkituko da batzarlekuan. Bestela, bigarren deialdian egin beharko da, *hau aurkitzen direnen zenbakia* nahikoa izanez bilera ontzat emateko.

13. Batzorde Zuzentzaileak *Batzar Nagusi Berezia* era dezake, arrazoirik ba dela pentsatzen badu. Deia euskal prentsaren bidez egingo da hogeitamar egun lehenago, kide guztiei gaztigu bana bidaltzen zaielarik. Honen bidez, eguneko gai-zerrenda adieraziko da.
- Lehen deialdian Batzarra ontzat eman ahal izateko kideen kopuruaren erdia, pertsonalki nahiz ordezkarien bidez, aurkituko da batzarlekuan. Bestela, bigarren deialdian egin beharko da, *han aurkitzen direnen zenbakia* nahikoa izanez bilera ontzat emateko.

* * *

14. *Kideen heren batek* eskatzen duela Batzorde Zuzentzaileak Batzar Nagusi Berezia eratu beharko du. Eskaria idatzita azalduko zaio Batzordeari, zioa zein den ezagutarazten delarik.
- Deia eta Batzarraren ontasunari dagokionez aurreko arauetan esandakoa izango da kontutan.
15. Batzar Nagusietako gaiak onarturik izan daitezten, bertan aurkitzen diren eta ordezkaritza bidali dutenen artean, 50 % a baino gehiagok eman beharko du proposatutakoaren aldeko botoa.
- Kide baten egoketa erabiltzen ari denean 75 % a izango da lortu behar den zenbakia.
16. Batzar Nagusiak *Batzorde Zuzentzailea* izendatuko du. Hau, lehendakari, idazkari, diruzain eta hiru bokalek osatuko dute. Karguen iraupena *lau* urtetakoa izango da. Lehen aukeran, bigarren urtea bete ondoren, idazkari eta bi bokalen karguak berrizatuak izango dira. Kargu guztiak berautakorak dira.
- Batzar Nagusiak Batzar Zuzentzailea *desegin dezake*, bai bere osotasunean, bai izen konkretu bat edo batzuren mailan.

BATZORDE ZUZENTZAILEA

17. Batzorde Zuzentzaileak honako beharkizun hauek bete behar ditu:
- a) Kideen asmo eta eskubideen alde ihardutea.
 - b) Barne Araudia idatzi eta berriztatzea.
 - d) Estatutuak, Barne Araudia ea berak agintzen duena kide guztiak betetzen dutela zaintzea.
 - e) Batzar Nagusietarako deiak egitea.
 - f) Urteko Balantze eta Kontuak Batzar Nagusi Arruntera azaltzea. Bide batez, hurrengo urteko aurrekontu eta helburuak azagutaraztea.
18. Batzar Nagusiak *Lehendakariak* zuzenduko ditu. Batzarretako agiriak, urteko Balantzea eta Elkartearen garrantzizko ohar eta agiriak *sinatuko* ditu.

Idazkariak Kide eta Agirien Liburuak eramango ditu. Batzarretarako deiak eta Elkartearen *gainerako sinadurak* egingo ditu. Baita Elkartearen *artxi-bategia* ere idazkariaren ardurapean egongo da.

Diruzainak Kontabilitate Liburuak eramango ditu. Kideei suaroa *kobratuko* die eta *txosten ekonomikoak* prestatuko ditu Lehendakariak honela eskatzen dionean.

19. Batzorde Zuzentzailearen bilera ontzat eman ahal izateko, lehen deiadian *batzarkiderik gehienak* aurkituko dira. Bigarrenean nahikoa izango da *hiru* egotea, horietako bat Lehendakaria izan behar delarik.
20. Batzorde Zuzentzaileak edozein kideren *egozketa* erabaki dezake. Hau behin eta betikoa izateko Batzar Nagusira azaldu behar da gaia. Hamabostgarren arauan esaten dena aplikatuko da.

DOKUMENTAPENA

21. Elkarateak, gutxienez, liburu hauek eramango ditu:
 - a) *Kideen liburua*: bakoitzaren zehaztasunak jarriko dira: izen-deiturak; nortasun-agiriaren zenbakia; bizibidea; Elkarate barnean duen kargua; noizdanik eta noiz utzita; Elkaratean noiz sartu zen eta, beraren kasuan, noiz utzi duen...
 - b) *Batzar-Agirien Liburua*: Nagusietako eta Batzorde Zuzentzaileak egiten dituenetako zehaztasunak jasoko dira: data; parte hartu dutenen izenak edo kopurua; erabilitako gaiak eta erabakiak...
 - d) *Kontabilitateko Liburuak*: Elkartearen ondarearen berri emango du. Dirusarrerak, gastuak... Hau da, urte bukaeran Balantzea gertatu ahal izateko beharrezkoak diren datu guztiak.

ELKARTEAREN ONDAREA ETA FINANTZIABIDEA

22. Elkarateak *ez du*, oraingoz, *inongo inbertsiorik* egingo, hasieran esan den bezala bulegoa Euskaltzaindiaren Bibliotekan baitago.
23. Elkartearen diru-iturriak hauek dira:
 - a) Kideen urteko *suaroa*.
 - b) Aldizkariaren *salmenta* eta "*copyright*"-a.
 - d) Kideen aldeko gestioak egitearengatik ezarritako *tarifak*.
 - e) *Dirulaguntzak*.
24. Batzorde Zuzentzaileak ezin dezake *mailegurik* eska, Elkarteko kideen ondareari kalte egin baitaioke. Batzar Nagusiaren *75 %-ak* egoki dela pentsatuko balu, *kide guztien abalaz* eskatu ahal izango litzateke mailegua.

ZENBAIT

25. Elkarateak *literatur-aldizkari bat* argitaratuko du eta, honen orrialdeetan, Elkarteko kideek bakarrik idatzi ahal izango dute. Aldizkariaren gestioa Batzorde Zuzentzaileak eramango du. Urteroko Batzar Nagusian aldizkariaren gaineko xehetasun guztiak eman beharko ditu Batzordeak.

26. Aldizkarian publikatzen diren lanen *eskubide ekonomikoak* Elkarateak kobratuko ditu, egileari dagokion garbiketa *jarraian* egin beharko zaiolarik. Kobratutakoaren gain Batzar Nagusiak erabakitako "ehuneko hainbeste" aplikatuko da *Elkaratearen gastuak arindu* ahal izateko.

ELKARTEAREN DISOLBAPENA

27. Batzorde Zuzentzaileak proposatu ondoren eta Batzar Nagusiaren *75 %-ak* honela pentsatuko balu, Elkaratea disolbatu egingo litzateke. Elkarateak unean eduki lezakeen ondarea *Euskaltzaindiari* eskainiko litzaioke.

Arrasaten, 82-III-17.

ASOCIACION DE ESCRITORES EN LENGUA VASCA

Con el nombre de ASOCIACION DE ESCRITORES EN LENGUA VASCA se constituye una entidad asociativa, libre e independiente, encaminada a los fines que se enuncian en el artículo n.º 1 del presente Reglamento. Se señala como domicilio provisional de la Asociación el que lo es de la Biblioteca Azkue, sita en Ribera, 6, de Bilbao.

Todo miembro de la Asociación acepta los presentes Estatutos:

1. La Asociación de Escritores de Lengua Vasca contempla el siguiente objetivo fundamental: mejorar las condiciones de trabajo para todo asociado. Para ello deberá cuidar y velar por los derechos morales y económicos de los escritores asociados.
2. La Asociación nace por un plazo de vida indefinido.

ASOCIADOS

3. Para poder pertenecer a la asociación el escritor deberá cumplir, por lo menos, una de las siguientes condiciones:
 - a) *Ser autor de un libro escrito en lengua vasca.* En este capítulo se tendrán en cuenta tanto la literatura creativa como la científica.
 - b) *Ser traductor a la lengua vasca de un libro,* sea cual fuere el tipo de literatura elegido.
 - c) Haber publicado en periódicos o revistas *cincuenta artículos en lengua vasca.*
 - d) Aún a pesar de no cumplir ninguno de los requisitos anteriores, la Junta General de asociados puede nombrar *Asociado de Honor* al escritor que en opinión de aquélla— merezca tal distinción.
4. El mero hecho de cumplir cualquiera de los apartados del artículo n.º 3 da opción a presentar la solicitud de ingreso en la Asociación, sin que se pueda por parte de ningún miembro de ésta poner veto alguno.
5. Existen dos motivos para abandonar la Asociación:

- a) Decisión voluntaria.
 - b) Decisión de la Junta General sobre expulsión del asociado.
6. Estos son los derechos de todo asociado:
- a) Tomar parte en los objetivos de la Asociación.
 - b) Poder abandonar voluntariamente la Asociación.
 - c) Conocer las actividades de la Asociación y poder analizar la documentación de ella.
 - d) Poder dar a conocer libremente sus opiniones.
 - e) Voz y voto en las Juntas Generales. El voto podrá hacerlo efectivo bien personalmente o bien por medio de un representante, a la vez miembro de la Asociación. El Asociado de Honor no tendrá derecho a voto.
7. Estas son las obligaciones de todo asociado:
- a) Guardar y hacer guardar el buen nombre de la Asociación.
 - b) Cumplir los Estatutos, Reglamento interno y las normas establecidas por la Junta Directiva.
8. El asociado deberá abonar anualmente la cuota que decida la Junta General. Los Asociados de Honor no tienen por qué cumplir con esta obligación.
9. Cualquier asociado podrá analizar las cuentas y documentación de la Asociación 15 días antes de celebrarse la Junta General Ordinaria.
10. Para que la Junta Directiva tome en consideración toda reclamación, propuesta.... deberá dirigirse ésta por escrito y debidamente firmada. La Junta Directiva, una vez analizada, la hará constar en acta, y —asimismo— la resolución, en caso que la haya, deberá hacérsela conocer al asociado por escrito.

JUNTA GENERAL

11. La soberanía de la Asociación se basa en la Junta General de asociados.
12. La Asociación celebrará una vez al año la Junta General Ordinaria. La convocatoria se realizará, por medio de la prensa, treinta días antes de la celebración, enviándose, asimismo, aviso a todos los escritores asociados. En la convocatoria se detallará el orden del día de la Junta que —por lo menos— tratará de:
- a) Presentación de Cuenta de Resultados y Balance del ejercicio, y en su caso, aprobación.
 - b) Presupuesto del próximo ejercicio.
 - c) Resumen de la gestión de la Junta Directiva. Objetivos más destacables.
 - d) Propuestas de los asociados.
 - e) Ruegos y preguntas.

Para que la Junta sea considerada válida en primera convocatoria, deberán estar representados en el lugar que se celebra aquélla la mitad de los asociados. Para la segunda convocatoria será suficiente el número que se encuentre presente.

13. La Junta Directiva podrá convocar Junta General Extraordinaria. Las condiciones de convocatoria y quórum serán las que se detallan en el artículo 12.
14. Un tercio de los asociados puede solicitar la celebración de Junta General Extraordinaria. La petición la dirigirá a la Junta Directiva debidamente firmada, exponiendo claramente los motivos. Las condiciones de convocatoria y quórum serán los detallados para los artículos 12 y 13.
15. Para que los puntos del orden del día sean aprobados, en caso de que debieran serlo, se necesitará el 50 % de los votos presentes y representados. Si el tema propuesto es el de expulsión de un asociado el porcentaje será del 75.
16. La Junta General designará la Junta Directiva. Esta estará compuesta por Presidente, Secretario, Tesorero y tres vocales. La duración de los puestos será de cuatro años. El primer turno, no obstante, se cumplirá al cabo de dos años, renovándose el secretario y dos vocales. Todos los cargos son reelegibles. La Junta General podrá solicitar la dimisión, y hacerla efectiva, de la Junta Directiva, bien en su totalidad o a nivel de algún miembro en concreto.

JUNTA DIRECTIVA

17. La Junta Directiva deberá cumplir las siguientes funciones:
 - a) Defender los derechos y objetivos de los asociados.
 - b) Redactar y renovar el Reglamento de Régimen Interior.
 - c) Cuidar del cumplimiento por parte de los asociados de los Estatutos, Reglamento Interno y las normas establecidas por ella.
18. Las Juntas Generales las dirige el Presidente. Este deberá firmar las actas de las reuniones, el Balance anual y las normas y principales notas y comunicados de la Asociación.

El Secretario llevará bajo su responsabilidad el Libro de Asociados y Actas. Firmará las convocatorias a Junta y el resto de notas y comunicados de la Asociación. Asimismo, se encargará del archivo de la Asociación.

El Tesorero llevará los Libros de Contabilidad. Cobrará a los asociados la cuota y preparará los informes económicos solicitados por el Presidente.

19. Para que la reunión de la Junta Directiva sea considerada válida, deberán encontrarse, en primera convocatoria, en el lugar designado previamente la mayoría de los componentes. En segunda convocatoria será suficiente la presencia de tres, debiendo ser uno de ellos el Presidente.
20. La Junta Directiva puede decidir la expulsión de cualquier asociado. Para que dicha decisión sea considerada válida deberá presentarse el tema en Junta General, aplicándose lo marcado en el artículo 15.

DOCUMENTACION

21. La Asociación, como mínimo, deberá llevar los siguientes Libros:
 - a) Libro de Asociados: se especificarán en él las características de cada asociado: nombre; apellidos; número D.N.I.; profesión; cargo que ostenta en la Asociación; fecha de ingreso y baja en ella...
 - b) Libro de Actas: se recogerán en él los puntos tratados en las Juntas Generales y de Directiva: fecha; orden del día; resoluciones adoptadas; número de asistentes...
 - c) Libros de Contabilidad: reflejarán la situación económica de la Asociación. En base a ello se confeccionará el Balance Anual.

PATRIMONIO DE LA ASOCIACION Y FINANCIACION

22. La Asociación no realizará, por ahora, ningún tipo de inversión, teniendo su sede social, como ya queda dicho, en la Biblioteca Azkue, sita en la calle Ribera, 6, de Bilbao.
23. Las fuentes de financiación que dispone la Asociación son:
 - a) Cuota anual de los asociados.
 - b) Venta de la Revista y derechos de autor.
 - c) Cobros realizados a asociados por gestiones especiales.
 - d) Subvenciones.
24. La Junta Directiva no puede solicitar, por decisión propia, ningún tipo de crédito. Si se creyera necesario, sería la Junta General quien decidiera, con un 75 % de votos presentes y representados, la solicitud de crédito, haciéndose la misma con el aval de todos los Asociados.

VARIOS

25. La Asociación editará una revista literaria y en ella sólo podrán publicar artículos los asociados. La gestión de la revista será llevada directamente por la Junta Directiva, que una vez al año, en Junta General, deberá presentar la memoria referente a dicha publicación.
26. Los derechos de autor de los artículos aparecidos en la revista serán cobrados por la Asociación, quien deberá realizar la liquidación correspondiente al autor. Para paliar los gastos de la Asociación, un porcentaje designado por la Junta General se aplicará sobre los derechos de autor gestionados por la Asociación.

DISOLUCION DE LA ASOCIACION

27. Propuesto por la Junta Directiva y aprobado con el 75 % de los votos presentes y representados, la Asociación deberá ser disuelta, pasando el patrimonio de la misma a propiedad de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

ARABAKO ORDEZKARITZA ZABALTZEAN

Gasteiz, 1982-III-26

Fr. Luis Villasante-Euskaltzainburua

Euskaltzainburuaren hitzak:

Hezkuntzako Kontseilari, Etxenike jauna,
Felipe Martin jauna, Arabako Diputazioaren Ordezkarria,
Euskaltzaindiko lagunak
Jaun-Andreak:

Zuri, Peli Martin jaun horri, zuzendu dizkiguzun hitzengatik, egin diguzun harreragatik eta Euskaltzaindiari eskeintzen diozun Ordezkaritza galant, eder eta aukerako honengatik, eskerrak bihurtzen dizkitzut bihotz-bihotzez! Eta berdin Arabako Diputazioko jaun guztioi.

Euskaltzaindia, Euskal-Herriko lau Diputazioen ume edo sorkaria dela, guztiok dakite. Horregatik, gure asmoa, bai lehen eta bai orai ere, gure jokaera, beti izan da lau Diputazio horiekin har-eman leial eta iraunkorretan egotea. Arabako Diputazioarekin, gainera, aparteko modu batean zorretan dago Euskaltzaindia, zeren-eta, urterik txarretan ere, hemendik izan baititu laguntza handiak, eta hori guretzat ahaztu ezina da.

Euskaltzaindiaren galtzarrean beti izan ditugu arabarrak. Hasiberri hartan, hantzen Aita Olabide, euskaltzain osoa, orai Endrike Knörr jauna den bezala. Euskaltzain ohorezkoen artean hor ditugu Odon Apraiz eta Gerardo López de Gereñu jaunak. Urgazleen artean, berriz, hainbat: Federico Barrenengoa, Antonio Berrueta, Peli Martin, Pedro Pujana, Manuel Ruiz Urrestarazu, Pedro Sancristoval, Patxi Urribarren...

Euskaltzaindiak azken urteotan maiz egin ditu ospakizunak eta batzarre agiriak Arabako lurretan. Gogoan ditut, guztiz hunkigarriak izan zirelako, Sabandon, Okondon eta Aramaion egin zirenak. Gasteizen, berriz, Odon Apraiz jaunaren omenezkoa, Euskaltzaindiko sorreraren urrezko ezteiak ospatu zirenekoa, Knörr jaunaren sarrera egunekoa, etab.

Gure amets zaharra zen, beste hiriburuetan bezala, hemen Gasteizen ere Ordezkaritza bat izatea. Horren beharra geroago eta premiatsuagoa zela ikusten genuen. Izan ere, edozeinek daki azken urteotan zer-nolako hazkunde miragarria eta garrantzia hartu duen Gasteizko hiri zahar baina berritu honek. Makina bat urtez, behin-behineko irtenbide bezala, Ordezkaritza hori Institución Sancho el Sabio delakoan

eta gero, Filosofi eta Letren Fakultatean egon da kokatua. Baina azkenean geure Bulegoak jartzeko nahi eta behar genuen tokia, eta ez nolana hikoia, guztiz egokia eta taxuzkoa baizik, Arabako Diputazioari esker, izan dugu, Vicente Goikoetxea kaleko etxe honetan. Gaur ospatzen dugu, bada, bulego horien estreinatzea.

Euskal-Herriko hiriburuetan Euskaltzaindiak dituen Ordezkaritza edo bulego hauek, zertarako dira? Noski, Euskaltzaindiari dagozkionetan, eskualde bakoitzean lan egiteko; beroietara, argitasun edo laguntza eske jotzen dutenei kasu emateko, heldu diren eskabide edo galderen arta izateko. Hortaz gainera, Euskaltzaindiak asmatan du lan plangintza orokor bat eratzea, eta plangintza horretan Ordezkaritza bakoitzari bere sail berezia seinatzea. Begiz joa eta hautatua du jadanik hemengoari, Gasteizkoari, emango zaion arloa, hots, Hiztegegintzako batzordea eta lantegia hementxe kokatzea. Hondarribiko bileran Hiztegegintza batzorde hori sortzea erabaki zen. Eta gaur-egun Gasteizen ditugunaz geroz sail honetako langile nagusiak —Mixelena jauna, Ibon Sarasola eta Knörr— hementxe jarri nahi dugu Hiztegegintzako geure lantegia.

Uste dugu, bada, gaur estreinatzen dugun tokiak etorkizun arraia izango duela bere ondotik. Garrantzi handiko urratsa ematen ari garela, alegia, bulego berri hauek zabaltzean.

Bilboko gure bulego berriak zabaldu zirenean esan nuena errepikatuko dut: Euskaltzaindia Euskal-Herriko lau Diputazioek sortua da. Ezin hautsizko lokarriak ditu, beraz, Diputazio horiekin. Gu orai ere horretan gaude. Diputazioen itzalpean egin nahi dugu geure lana. Arabako Diputazioak eman dizkigun bulego berri eta eder hauekin lotura horiek sendotu besterik ez dira egingo. Emaitza honengatik Euskaltzaindiak bere esker ona agertu nahi dio Arabako Diputazioari.

* * *

Excmo. Sr. D. Peli Martin Latorre

Sres. miembros de Eusko Ikaskuntza, de la Sociedad de Amigos del Pais y de Euskaltzaindia

Señoras, Señores:

En este día en que la Real Academia de la Lengua Vasca, inaugura o estrena su sede o Delegación de Alava, nuestra primera y obligada palabra quiere ser de reconocimiento y gratitud hacia la Excm. Diputación Foral de esta provincia y en particular hacia el Sr. Diputado Peli Martin Latorre, que ha querido venir en persona a presidir esta inauguración.

En calidad de Presidente de Euskaltzaindia, me limitaré a recordar brevemente los lazos con los que la Academia de la Lengua Vasca ha estado en todo momento, desde su fundación, vinculada a esta provincia de Alava y a su Diputación Foral. Euskaltzaindia fue fundada, como es sabido, en 1918-1919, por las cuatro Diputaciones de nuestro país, o sea, de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Las cuatro de mancomún se comprometieron a darle su respaldo, reconocimiento y ayuda. Y por lo que respecta a la de Alava podemos decir, y debemos decir, que aun en años difíciles para nuestra Institución, la Diputación de esta Provincia se ha señalado por su particular atención y ayuda a la Academia.

Euskaltzaindia, por su parte, siempre ha procurado mantenerse en esta línea fundacional u originaria; queremos decir, que su propósito, lo mismo antes que ahora, es mantener y aun robustecer, si cabe, sus lazos de dependencia con las mencionadas Diputaciones. Por ello mismo, las Delegaciones que en las capitales del país tenemos, queremos que, a poder ser, estén ubicadas en locales de la respectiva Diputación.

Y por lo que se refiere a la presencia de Alava en el seno de Euskaltzaindia, no estará de más recordar que ya desde el principio, un vitoriano, el P. Olabide, fue miembro de número, como lo es ahora el Sr. Enrique Knörr. Entre los académicos de honor actuales figuran los Sres. Odón de Apraiz y Gerardo López de Guereñu. Entre los académicos correspondientes, los señores Federico Barrenengoa, Antonio Berrueta, Pedro Pujana, Manuel Ruiz Urrestarazu, Patxi Urribarren. Mención especial merecen los también académicos correspondientes señores Peli Martín Latorre y Pedro Sancristóval, ya que el primero es diputado foral y presidente del Consejo de Cultura y el segundo Secretario del mismo en la Diputación Foral de Alava.

En estos últimos años la Academia ha celebrado bastantes actos públicos, conmemoraciones de efemérides, etc., en tierras de Alava. Así, por ejemplo, se celebraron actos entrañables en Sabando en honor de Gámiz, en Oquendo en honor de Ulibarri Galindez, en Aramayona (donde también este año se va a volver a celebrar otro en honor de Barrutia). En cuanto a la vieja Gasteiz, han sido numerosos los actos o sesiones públicas aquí celebrados. Mencionaré particularmente el homenaje al Sr. Odón de Apraiz, el acto de recepción del académico Sr. Enrique Knörr, la conmemoración de las bodas de oro de la fundación de la Academia, etc.

Nuestro viejo sueño era contar en la capital alavesa con una delegación, así como contamos ya con ella en las otras capitales del país; y Delegación, a poder ser, ubicada en la Diputación. El palacio de la Diputación de Alava es, como todos sabéis, pequeño, y está ocupado al tope. Como soluciones provisionales, hemos contado en estos últimos años con los locales de la Institución Sancho el Sabio y posteriormente con un despacho en la Facultad de Filosofía y Letras. Pero, por fin, se ha llegado a la solución definitiva e ideal, gracias a la esplendidez de la Excma. Diputación Foral de Alava, con estos magníficos locales de la calle Vicente Goicoechea, que, según me informa nuestro Vicesecretario Sr. Lizundia, hasta ahora han servido de oficinas del Parlamento Vasco. Alava cuenta desde este momento con una Delegación adecuada y apta de Euskaltzaindia, ubicada en estos locales que pertenecen a la Excma. Diputación Foral de Alava. Gracias a ella.

Y bien, dirá tal vez alguien: ¿Para qué son estas Delegaciones? ¿Qué se va a hacer en ellas? Triste sería, efectivamente, ocupar unos locales, si en ellos no se va a hacer un trabajo que justifique su ocupación.

El primer trabajo de las Delegaciones de Euskaltzaindia es atender en ellas al despacho de las consultas y asuntos relacionados con la lengua vasca, provenientes de la respectiva provincia o región. Al frente, como director responsable de cada Delegación, Euskaltzaindia pone a un académico de número que a poder ser resida en el lugar donde está ubicada la delegación. En nuestro caso el director responsable de la Delegación de Alava es el académico de número Sr. Enrique Knörr.

Aparte de esto, la Academia quiere planificar su trabajo asignando a cada Delegación una parcela peculiar o propia de sus grandes cometidos. Y, en concreto, en esta Delegación de Alava se ha pensado centralizar todo lo relativo a la labor de Dic-

